


Zuriñe Frutos bosgarren Espainiako Kopako mendi lasterketan

Sozioekonomia

Larunbatean Alternatiben Herrira joateko deia zabaldu dute 6. or.



Kirola

Gorobel Ibilaldian izena emateko epea, urriaren 29ra arte 13. or.



Iritziak:

TXEMA URKIJO 2. or.
ITZIAR LARRAZABAL 6. or.
ASIER AMONDO 7. or.
MIKEL AYLLON 10.or
MATEO PAGAZAURTUNDUA 11. or
ITZIAR URKIJO 16.or

aiaraldea.eus

Aiaraldeko hamabostekaria
2015 /// Urriak 22 ///
OSTEGUNA
39. zenbakia ///
Doan ///
www.aiaraldea.eus



JESUS DE GALINDEZ (AMURRIO, 1915)

Gerra hotzaren lainopean desagertutako amurrioarra

Jesus de Galindez Amurrion txistua jotzen 1933an. Argazkia: Aztarna Etnografi Elkartea

ORDU ALDAKETA



Igande honetan -URRIAK 25- ordulariak ordu bat atzeratu beharko dira: 03:00etan 02:00ak izango dira.

Ikastera joateko garraio gabeziak



Umeak eskolara joateko garraioan dauden hutsuneak salatu dituzte Etxaurren Ikastolako eta Zaraobe Institutuko gurasoen elkarteek. Leioako Campusera doazen ikasleek ere gabeziak sumatu dituzte.



HALLOWEEN, AI ARROTZA?: Ospakizunaren antzinako arrastoak Euskal Herrian eta Aiaraldean 10 or. *+ KALE INKESTA*

wegoaz.com

ZURE BIDAIA AGENTZIA URDUÑAN

Zure bidaien bilatzaile izan nahi dugu, familiakoekin, bikotearekin, lagunekin edota bakarrik zain duzun munduko txoko horretara hurbiltzeko!

10urte baino gehiagoko esperientzia!

Bidai pertsonalizatuak!

608 182 172
info@wegoaz.com
www.wegoaz.com

_iritzia



Txema
Urkijo
ABOKATUA

_Leihotik

La viña

Rilke poetari adierazpen hau egozten diote: "Nire aberria nire haurtzaroa da". Eragin handia izan zuen esaldi horrek beste hainbat pertsonengan. Nik esaldi hori nerabezarora eta lehen gaztarora zabalduko dut, bizitzari irekitako loreen, aurkikuntzen, ilusioen eta emozio uholdeen garaietara. Horren guztiaren erdian gure bizitzetan garrantzi berezia izan zuten lekuak egon ziren. Horietako bat badoa orain. Badoa, lehenago ere, urteak aurrera joan ahala, beste bihotz zatitxo batzuk joan diren bezala: eraikinak, lekuak, pertsonak... nostalgia aurrera doa, pauso indartsuarekin joan ere.

Gure lehen ardoak (garagardoa baino lehen), karta partidak, klasetik piper egitean topatzen genuen aterpea, biltzeko lekua eta, batez ere, musika. Zirrara itzela tabernaren izkinan, leihoa parean, tabako ke eta zapore etilikoen artean zegoen jukebox-aren bitartez. Bizitza deskubritzen Lou Reed, Dylan, Chicago, Cat Stevens, Pynk Floyd edo Benito Lertxundiren erritmoan. Espazio magiko bat izan zen bertigo indibidual, kolektibo eta sozialak iraun zuen urteetan. Aurrerago ere jarraitu zuen hitz egiteko toki lasaia izaten, musika ona izaten, eta giroa aproposa zenean, dantzarekin parranda eskaintzen.

Fernando, Edurne, Pantxi, MariLuz, Sara eta Nandik 40 urte baino gehiagotan eginiko lan izugarriaren itzala fisikoki desagertu egingo da gainontzeko guztientzako ederra egiten zuen izkinatik. Orain geratzen zaidana kontsolamendua da, taberna hori gure bizitza-aberri txikian izateko plazer eta pribilegioa izan dugun laudioar guztion bihotzetatik inoiz ezabatuko ez denaren kontsolamendua.



Daniela, Eider eta Naia
Ikasleak

Asko gustatzen zaigu Halloween gaua eta bai, ospatu egingo dugu. Aurten ere aterako gara Urduñan. Mozorrotu egingo gara seguru asko, sorginen moduan jantziko gara. Lagun guztiak joaten gara Halloween gaua ospatzera. Kaletik ibiltzen gara.



Jesusa
Etxeko langilea

Bai, ume asko ikusten dira kaletik, beldurrezko pertsonaiez mozorrotzen dira. Plazan ikusten ditut normalean. Polita da, niri beldurra ematen didan arren. Mozorrotuak ateratzen direnean, atzapar eta eztenak soinean dituztela... ez dut gustuko. Baina hori bai, umeek izugarri ondo pasatzen dute.

?_GALDERA

Halloween ospatzeko ohitura dago eskualdean? Gustuko duzu?

BIDEOA WEB-GUNEAN

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.eus helbidera idatzita.



Arturo
Fabrikako langilea

Bai, azken urteetan egon da Halloween gaua ospatzeko joera, baina umeen artean. Mozorroak lortzea, dirua, gozoki gehiago erostea eta kalean ohikoan baino denbora gehiago egotea da gurasoontzako. Corte Ingles saltokiaren festa bat gehiago baino ez da Halloween, nire ustetan.



Begoña
Irakaslea

Azken urte hauetan geroz eta gehiago ari da ikusten, akademietan ingelesa ikasten dauden ikasleetatik hasita. Nik ez dut gustuko, egia esan. Hemengoak diren ohitura batzuk oraindik nahiko baztertuak daudela uste dut, eta globalizazioak bitartean horrelako ohiturak sartzen ditu.



Sergio
Egokitzailea

Umeek, nik dakidala, ez dute ospatzen. Amerikatik ekarritako zerbait da. Festa bat da, beste askoren artean.

Badaude Halloween gauerako dekorazio berezia prestatzen duten taberna edo saltokiak, baina jendea kaletik mozorrotua nik behintzat ez dut ikusi Urduñan bizitzen eman dudan denboran

_gutunak

Jane Harbour Olategi pertsonai anonimoari erantzunez

Luis Vil (Musikari eta zinemagilea)

Ez da atsegina zure burua justifikatu behar izatea, egiten dituzun ekintzak baitira gainontzekoen aurrean nolakoa zaren erakusten dutenak. Baina kritikak norberaren inguruan jendeak pentsatu dezakeenetik harago doazenean eta norbaitek zurekiko difamazioak publikoki egiten dituenean, ez da norbere burua justifikatzea beste erremediorik geratzen, gezurra estaltzeko egia kontatuaz. Gutun hau Aiaraldea Egunkariaren aurreko zenbakian idatzitako bati eginiko erantzuna da. Jane Harbour Olaegi eziz enaz sinatu zuten gutun hori, seinalatua izateko arriskurik gabe akusatu ahal izateko.

"Excisión" filmaren estreinaldian ez zen egon kartelik zeinetan jartzen zuen gonbidapena ez zuen jendeak ezingo zuela sartu behin eserlekuak beteta.

Bazegoen kartel bat zeinetan jartzen zuen: "18:40ean sarrera eserlekua erreserbatua duten pertsonentzat, 18:50ean gainontzekoentzat".

Ez zen inorentzako gonbidapenik egon ezin delako inor gonbidatu doakoa den ekimen batean. Gonbidatuen errenkada, beraz, ez zen inoiz existitu.

Agian pertsona hori informatu beharko litzateke estreinaldi batera joan baino lehen. Agian horrela jakingo luke aktoreentzat, grabaketako taldekideentzat eta filmean lagundu dutenentzat eserlekuak erreserbatu egiten direla estreinaldi batean (erreserbatzea eta gonbidatzea ez da gauza bera).

Eserleku erreserbatuak bete zirenean, 18:50etatik aurrera, gainontzeko jendea sartu zen. Nik jendeari transmititu nizkion "agindu" eta "arauak" honakoak izan ziren: MESEDEZ ez zitezela amaierako kredituak bukatu arte altxatu, kreditu horietan aipatzen diren eta errekonozimendu une hori zor diedan pertsonekiko errespetuagatik, DOAN proiektatzen den filma batean DOAN egin dutelako lan, besteak beste.

Ez naiz ni Laudioko herritarrei barkamena eskatu beharko diena DOAKO ekimen kultural bat egiteagatik, zeinegatik ez nik ez eta parte hartu duen inork ez duen etekin ekonomikorik lortuko, guztiz kontrakoa baizik. Agian zu (Jane Harbour) zara barkamena eskatu behar duena zure ezjakintasunagatik eta komunikabide baten besteen izen ona zikindu, difamatu eta gezurrak esateagatik, anonimotasunetik eta benetako izenarekin aurpegia eman nahi ez izatearen koldarkeriatik.

Aizu, bide batez esan nahiko nizuke gaizki egin zenuela proiekzioaren erdian joateagatik, "arautegi zorrotza" inposatu nuen arren, filmak jaso zituen txaloak ikusita, jendeak lanaz gozatu egin zuela esan daitekeelako.

HUTSEN ZERRENDA:

Aiaraldea Egunkariko erredakzioak ez zuen aurreko egunkarian (2015/10/07) "Excisión filma" izenburupean argitaratutako gutunaren egiletza behar bezala egiaztatu. Hori dela eta aurrerantzean egunkarian argitaratzeko identifikazio zehatza eskatuko da.

Argitaratzailea:
Aiaraldea Komunikazio Leihoa
Tirada:
10.000 ale.
Maiztasuna:
Hamabostekaria
Lege gordailua:
BI-1230-2013
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea:
publizitatea@komunika.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Web-gunea:
www.aiaraldea.eus
Helbidea:
Nerbio Kalea 1, 3. esk.
Laudio. Araba. 01400
Telefonoak:
Tel: 94 656 85 54/688 62 59 00

ERREDAKZIO OHARRA:
Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

Egunkari hau laguntzen dute:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

CuadraBus
CuadraBus
Zankueta Poligonoa z/g – Amurrio, Araba. Tlfnoa: 902 210 215
info@cuadrabus.com

G! Graf!k
Graf!k Koop.
Telleria 2 01400 Laudio (Araba)
94 672 65 43
info@grafiksarea.com

JEZ
JEZ Sistemas Ferroviarios
Arantzar, z/g · LAUDIO (Araba)
Tel.: 946 721 200 // infor@jez.es

ausolan
Uribarri etorbidea 35
20500 Arrasate
ausolan@ausolan.com

_herriz herri

Laudio



Jaien daten eztabaidari helduko diote. /aiaraldea.eus

Laudioko jaiak ospatzeko egutegiaren eztabaida ireki da

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru Saez

Urriaren 24an Kultura Etxean goizeko 10:00etatik 14:00ak arte ekingo diote jaiak ospatzeko daten eztabaidari. Gai horretan interesatuta dagoen guztiak parte har dezake hitzorduan, baina ekimena gidatzen duen lantaldeak eztabaidan bereziki kultur, kirol eta jai talde eta eragileek, merkatariek, talde politikoek eta herri etxeek parte hartzea nahi du. Hala ere, udal gobernu taldeak adierazi du garrantzitsua dela ahal beste herritarrek ematea euren iritzia.

Larunbateko hitzorduan 60 edo 80 pertsona biltzea espero dute antolatzaileek, eta world cafe eredua jarraituta, lantalde txikietan eztabaida emankorrak ematea.

Prozesu baten lehenengo urratsa izango da larunbatekoa, talde sustatzaileak ez baitu nahi eztabaida ika-mika politiko bihurtzea. Hori dela eta eztabaidan adostasun zabalak lortzea izango dute helburu.

Prozesu horretan laguntzeko bitartekari lanak egiteko enpresa bat kontratatu du Udalak eta hau izango da hain zuzen ere -talde sustatzailearekin batera- prozesua dinamizatuko duena.

Jaien daten inguruko hausnarketa bultzatu duen taldea iaz osatu zen eta ondorioz eztabaida ez da zerotik abiatuko. Taldekideek egindako lanketa oinarri bezala hartuko dute eztabaidarako lehen saio honetan.

Horrela, lehenik eta behin hainbat aldagai jarriko dituzte mahai gainean; jaien iraupenak zenbatekoa behar duen izan, noiz kokatu behar diren egutegian, Bilboko jaiekin bat egingo duten eta abuztuko erdialdeko egunak txertatu behar ote diren.

Balizko datak

Egutegiari dagokionez lan-taldeak zabaldu dituen proposamenak hurrengoak dira: indarrean dauden datak mantentzea, abuztuaren 15etik 22ra ospatzea, abuztuko bigarren larunbatean hasi eta hileko hirugarren igandean bukatzea, abuztuko hirugarren larunbatean abiatzea eta hileko laugarren igandean amaitzea, abuztu eta iraila artean ospatzea eta azkenik, ekainean gauzatzea ospakizunak.

Aukera bakoitzak izan ditzakeen alde onak eta txarrak zerrendatu ditu talde sustatzaileak baina ekarpen gehiago egin ditzakete Laudioko interesdunek.

Ermuko Santutegia hobeto ezagutzeko bisita gidatu berriak abiatzear



ERREDAKZIOA I Lucía Menoyo

Urriaren 27an hasi eta abenduaren 29ra arte luzatuko da bisita gidatuen zikloa. Sergio Escribano arkeologoak zuzenduko ditu bisitak eta astero hiru egunetan izango dira: astearte, ostegun eta larunbatetan.

Asteartetan goizeko ordutegian (9:30-13:30), ostegunetan arratsaldeko ordutegian (15:30-19:30) eta larunbatetan goizez zein arratsaldez (9:30-13:30 // 15:30-19:30) egiteko aukera izango da.

Ekainean Ermuko Santutegian lan arkeologikoa hasi eta nekropoli baten aztarnak aurkitu zituzten: bi hilobi, txanponak eta balio historiko handiko beste hainbat gauza. Bisitetan hori guztia ondo ezagutzeko aukera eskainiko dute.

Bisita gidatuak euskaraz zein gaztelaniaz eskainiko dira. Doakoak izango dira baina erreserba egitea beharrezkoa da. Erreserba egiteko 619753302 telefonora deitu behar da astelehenetik ostiralera hurrengo ordutegian: 9:00-14:00 / 16:00-19:00. Bisiten iraupena 50 minutukoa izango da. Udan Ermuko Santutegian egin zen lan arkeologikoa azaltzeaz gainera, tenpluak biltzen dituen garai desberdinetako adierazpen artistiko eta historikoak aurkeztuko dira eta udan induskatu dituzten eta orain beirate batez babestuta dauden hilobiak ikusteko aukera ere egongo da. Laster www.ermualde.com webgunea abiatuko dute.

Urduña



60. hamarkadako etorkinek ere parte hartuko dute jardunaldietan.

Migrazioaren garrantzia landuko dute “Urduñar berriak” jardunaldietan

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru Saez

Adratan Etnografia elkarteak jardunaldiak prestatu ditu Urduñan emandako migrazioen inguruan. Azaroaren 5etik 8ra garatuko dira jardunaldiak, eta hitzaldiak, mahai inguruak eta omenaldiak uztartuko dituzte horretarako.

Elkartearen asmoa da migrazioak Urduñan izan duen garrantzia goraipatzea, ez bakarrik azken urteotakoa, baita XX. mendekoa ere. Elkarteko kideen ustez gai arantzatsua da, baina modu egokian jorratzeko ekarpen aktibo bat egin nahi dute.

Jardunaldiak Alhondegian izango dira -iazkoak Kultur Etxean egin zituzten- eta Jesus Maria Garaio eta Nuria Telleria soziologo urduñarrek irekiko dituzte urriaren 5ean, 19:30ean. Garaiok migrazioaren inguruko begirada eskainiko du XX. eta XXI. mendeei erreparatuz. Telleriak, aldiz, “Etorkin behar-beharrezkoak: ondorioak eta erronkak lurralde hartzailetan” hitzaldia emango du. Hurrengo egunean, urriaren 6an eta ordu berean, estatu espainiarrean jaiotako urduñarrek izango dute hitza, haien esperientziak partekatu eta analizatzeko. Horretarako mahai inguru antolatu du Adratanek.

Urriaren 7an estatu espainiarretik kanpo etorritako urduñarrek izango dute protagonismoa, mahai inguruaren ereduarekin jarraituz.

Jardunaldiak bukatzeko urriaren 8an Jose Ignacio Ruiz Olabuenaga soziologia katedraduna omenduko dute, 12:00etan. Urduñarrak egindako lan zientifikoa aitortu ez ezik, migrazioaren inguruan izandako ikuspegia ere nabarmendu nahi du Adratan Elkarteak.

Jardunaldiei amaiera emateko hainbat sorterriko urduñarrek esperientzia baloratzeko aukera izango dute. Gainera, Adratanek esperientzia trukaketari jarraipena emateko proposamena egingo die.

_herriz herri

Aiara

Aiarako euskararen asteburuaren edizio berria antolatu dute



Fita Fik eklarteko musikariek parte hartuko dute. /aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA I Miren Ayesa Aranoa

Aiarako Euskararen Asteburua aurten urriaren 23an, 24an eta 25ean ospatuko da Luiaondon, Arespalditzan eta Lantenon. Euskararen sustapena indartzeko ekimena Aiarako Udalak, Etxaurren Ikastolak, elkarteek eta administrazio batzarrek antolatzen dute.

Ostiralean, urriak 23, Luiaondoko frontoian 18:30ean familiek diskojaian parte hartzeko aukera izango dute. Gainera, umeek dantzan ikasteko DVD bat jasoko dute. Programarekin jarraituz, larunbatean 18:00etan "Aiara danon artean" ekimena egingo da Arespalditzako azoka-lekuan. Ekitaldia Fita Fik taldearen musikarekin eta Aiarako bertsolari baten bertsoekin jantziko da. Jarraian 24 herrietako pankartek lagundutako musika-kalejira egingo da. Eguna ixteko, 19:30ean txokolatea eskainiko zaie bertaratutakoei.

Igandean aldiz ospakizunak Lantenoko Arte eskolara mugituko dira, Bertan Hodei magoak eta Tiritatxok ren magia ikuskizuna eskainiko dute 17:00etatik aurrera. Ondoren, askaria eta eskulan-tailerra ere egongo dira.

Orozko

Udal tresna eta lokalen araudia proposatu dute

ERREDAKZIOA I

Orozkoko Udala zerga, tasa eta araudiak lantzen ari da aurrekontuak prestatzeko lehen urrats bezala. Azken urteetan bezala zergak eta tasak eguneratzeko KPIa proposatu du udal gobernu taldeak. Aurten indizeak % 0,3ko jaitsiera izan du eta zinemako sarreretarako izan ezik, beste tasa guztietarako jaitsiera hori proposatu dute. Horretaz gainera, hondamendiak sufritu dituzten pertsonek %95eko hobariak jasoko dituzte.



Udal tresnak eta lokalak

Udal tresnen eta lokalen mailegua ere mahai gainean jarri dute. Udal azpiegiturak udalerrian soilik erabili ahal izango dira, beste udal bati uzten zaionean salbu. Bestalde, jazotako matxurak eta kalteen ardurak ere eskatuko dira.

Era berean araudiak politika, sindikalgintza edo erlijioari lotutako jarduerei tarifa bat ezartzea aurreikusten du.

Amurrio

Aldundiak Amurrioko ur depositu berri baten eraikuntza esleitu du



Lexartzun egingo dute azpiegitura berria. /aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA I Irati Moreno Fernandez

Arabako Foru Aldundiak Amurrioko ur depositu berri baten eraikuntza esleitu du. Proiektua gauzatzeko 398.299,29 euro bideratuko dira eta Construcciónes Moyua, S.L. enpresak egingo ditu lanak lau hilabeteko epean.

Depositu honekin Amurrioko ur-horniduraren egungo sistema osatu eta indartu egingo da, gaur egungoa ez baita nahikoa, batez ere, matxurak, konponketa zein garbiketa lanak edo suteak diren kasuetan.

Depositu berria Lexartzun egingo da, zaharraren ondoan, eta Izoriako EUA-tik (Edateko Uren Arazketegitik) egin beharreko eroapena ere sartuko da lan hauetan, bai eta Amurrioko banaketa sarearekiko lotura ere. Bestalde, urrutiko kontrolerako elementuak ezarriko dira, hornidura sistema guztia hobetzeko. Onartu den proiektuan ingurumena lehenetzea eta paisaiarekiko integrazioa ere jasotzen da. Obrek eragingo duten narriadura eta landaretza erasana leuntzeko zuzenketa neurriak aplikatzea da asmoa. Gainera, azterlan bat eta diseinu bat egingo dira landarerik onenak zeintzuk diren jakiteko, depositu berriaren paisaia-integrazio egokiena izan dadin.

Arrankudiaga Zollo

Laguntza humanitarioa erabakitzea, herritarren esku



ERREDAKZIOA I Ixone Mendibil

Arrankudiaga-Zolloko udalak aurrekontuetan Laguntza Humanitariorako diru kopuru bat bideratzen du urtero. Bertako herritarrek aukera daukate proiektuak aurkezteko diru-laguntza hau jasotzeko. Proiektuak aurkezteko epea azaroaren 20an amaituko da.

Udalak, bere aldetik, munduan ezbehar bat gertatuz gero, kontuan izaten du, eta horra ere diru kopuru bat bideratzen du.

Iaz horrela banatu zituzten diru-laguntzak: Mozambikera 1350 euro, Nikaraguara 1350 euro, Herriko pertsona batentzako 1350 euro, Gazara (Palestina) 1350 euro, eta Euskal Fondora 600 euro. Arrankudiaga-Zolloko udala Euskal fondoaren bazkide denez, %10 gutxienez horretara bideratu behar du, hau da, Laguntza Humanitariora.

Artziniega



EAJko udal gobernu taldeak aurkeztu du plana. /aiaraldea.eus

Komunikazioa, hirigintza eta partaidetza 2015-2019 planaren helburuak

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru Saez

Artziniegako EAJko udal-gobernu taldeak indarrean dagoen legealdiko helburu estrategikoak aurkeztu zituen azkenengo tokiko gobernua batzarrean. Iñigo Gomez alkatearen ustez anbizio handiko proiektua da eta itxi gabeko dokumentua osatu dute, "egoera ekonomikoak asko baldintzatuko baitu".

Udal gobernu taldeak jarraituko dituen ildoak hurrengoak dira; herritarren partaidetza eta herritarreikoko komunikazioa, herriko zerbitzuak hobetzea, hirigintza berrikustea, hiri-ingurunea modernizatzea, azpiegiturak hobetzea eta garapen ekonomikoa sustatzea. Aipatutako helburuak bete ahal izateko hainbat egitasmo jaso ditu gobernu taldeak; hiruhilabetekari bat argitaratzea paperean, udalak facebook orria izatea, app bat garatzea eta gai jakin batzuetan partaidetza prozesuak abiatzea besteak beste.

_herriz herri

Aiaraldea

Tokiko eskola-agenda aurkeztu du Zuztarluzek



ERREDAKZIOA I

"Zuztarretik Ahora" proiektuaren ikasturte honetarako eskola-agenda eta webgune berriak aurkeztu ziren Orozkon pasa den ostiralean. Zuztarretik Ahora Nerboi Ibaizabal bailarako kultur ondarea berreskuratu eta jendarteratzeko proiektua da, tartean Orozko Arakaldo eta Arrankudiaga-Zollokoa. Hiru herri horietan ikasten duten umeek jasoko dute agenda berria.

Almudena Otaola okondoarra izango da senaturako hautagai jeltzalea



ERREDAKZIOA I

Larunbatean aurkeztu zituen EAJk hauteskunde orokorretarako Arabako hautagaiak. Senaturako lehen hautagai arabarra Almudena Otaola okondoarra izango da.

Otaolak aurkezpen ekitaldian egindako diskurtsoan tokiko erakundeak defendatzeko premia azpimarratu zuen, azkenaldian zenbait alderdik egindako adierazpenei erantzuteko.

Okondo

Basogintza kudeaketa plana prestatzen ari da udala



Landatuko diren zuhaitzen inguruko eztabaida irekiko dute.

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru Saez

Okondoko udalak bere basoetan zer egingo den erabakitzeko kudeaketa plana prestatu nahi du. Horretarako enpresa baten zerbitzuak kontratatu ez ezik, herriko elkarte eta abeltzainekin elkartuko da haien iritzi eta ekarpenak jasotzeko.

Sergio Tato alkateak azaldu duenez, udal basoak orain arte pinuak landatzeko erabili dira batez ere -tontorrak izan ezik, abeltzainei utzi baitizkiete-. 2015a bukatu baino lehen amaitu nahi dute basogintza kudeaketa plana eta horretarako Udaleko landa eremuak ikertuko ditu kontratatuko enpresak.

Horren bitartez lur eremu bakoitzeko erabilera egokiena argitu nahi dute. Horrela zuhaitz hostotsuak, hazkuntza azkarreko espezieak, tokiko zuhaitzak edo beste landare motak lurraren eta eguraldiaren ezaugarrien arabera lehenetsi nahi dituzte.

Arakaldo

Arakaldon euskara ikasteko aukera, euskaltegi berezi batean



ERREDAKZIOA I

Hasi da Arakaldoko Euskaltegian izena emateko epea.

Txikia izateaz gainera, berezia ere bada Arakaldoko Euskaltegia. Bertara doazen herritarren helburua nagusia ez da, ohikoan izaten den bezala, hizkuntza profila edo Euskararen Gaitasun Agiria ateratzea, euskaraz bizitzeko gai izatea baizik.

Matrikula egiteko arakaldokoa izatea da baldintza bakarra.

GAZTE SORTZAILEAK
BEKA DEIALDIA

Gasteizko Udalaren Euskara Zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiaren Euskararen Foru Zerbitzuaren laguntzarekin, Gazte Sortzaileak beka deialdia sortu du.

- Beka horren helburuak:
  · Gazteen artean sorkuntza bultzatzea
  · Gasteizko kultura programazioan, besteak beste, eragitea, gazteek gazteentzat sortutako jardueren bidez.
- 17 eta 35 urte bitarteko gazteek parte har lezakete deialdi honetan. Horretarako bi kategoria antolatu dira: 17-24 eta 25-35 biak barne.
- Deialdi honetara aurkeztuko diren kultur ekitaldi edo proiektuak euskaraz eta ahozkotasunari estu-estu loturik egongo dira: antzerkia, bakarrizketa, poesia-emanaldia, musika, bertsolaritza, ikus-entzunezkoa, baita diziplinen arteko hibridazioa ere.
- Formatu txikiko jarduerak hobetsiko dira.

Proiektuak azaroaren 13a baino lehen bidali behar dira helbide honetara:
Gasteizko Udalaren Erregistro Nagusia -Teodoro Dublang margolaria 25

DEIALDIAREN OINARRIAK OSO-OSORIK: www.vitoria-gasteiz.org/euskara

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

VITORIA GASTEIZ green capital

_sozioekonomia



Itziar
Larrazabal
ELA

_Argia

Urriaren 24an zatoz Bilboko alternatiben festara!

2013an jarri zuten mugarria Bizi!-ko lagunek. Egun batez Baiona alternatiben herrixka bat bihurtu zuten.

Natura eta gehienon bizitza hondamendira daraman kapitalismoari eguneroko erabakien bidez aurre egiteko moduak erakutsi zizkiguten Baionan.

Zer jan, nola ekoiztu, dirua nola erabili, non gorde, nola sortu txanpon soziala, nola mugitu, nola sortu eta eskuratu energia garbia, aberastasunaren eta lanaren banaketa bidezkoa nola egin, kontsumo arduratsua praktikan jartzeko aukerak, bertako ekonomiak dituen aukerak, pertsonen arteko harreman eta zaintzaren garrantzia…

"Ez zaigu gustatzen dagoena", esaten du jendeak, "baina ez dago alternatibarik". Baina, alternatibak sortzen ari dira han eta hemen.

Zeri deitzen diogu alternatiba? Helburua bizitza jasangarrian, bizitza bizigarrian, bizitza burujabean duten proiektuak dira alternatiba. Mozkina eta kapitala helburu izan ordez bizitza duina eta iraunkorra helburu dutenak.

Alternatiben Egunaren helburua litzateke alternatiba horien saretzea, eta erakustea, benetan gure esku, eguneroko erabakietan baditugula beste modu batera kontsumitzeko moduak, baditugula beste banku eredu batzuk, energia berriztagarrien kooperatibak, bertako produktuak eta garaikoak, ekologikoak kontsumitzeko sareak…

Talleres Arechagaren akzioen ia erdia, enkantera



ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru Saez

Laudioko Garde auzoan kokatuta dagoen Talleres Arechaga enpresako akzioen gehiengoa -% 49,5 hain zuzen- enkantera aterako dute azaroaren 2an. Hala ere, enkantearen aurkako helegitea jarriko du Ugaoko Talleres Jaulice, Caldereria Leuna eta Pigran-eko langileen abokatuak.

Talleres Arechagako akzioak konkurtso-prozesu batetan aterako dira enkantera, Juan Antonio Jauregui Urrutikoetxearen aurkako prozesuan hain zuzen ere. Pertsona hori erruduntzat jo dute epaileek Ugaoko Talleres Jaulice, Caldereria Leuna eta Pigran enpresen 7.000.000 euroko zorra sortzeagatik.

Hori dela eta, Inversiones y Servicios Ovillan-en zituen akzioak enkantera aterako dituzte. Ovillanen bitartez Talleres Arechagako akzioen % 49,5aren jabea zen Jauregui, eta horregatik eramango dituzte enkantera tailerraren akzioak. Dena den, Jauregik zor ugari pilatu ditu; guztira 1,8 milioi euro. Baina, langileen abokatuaren ustez, Talleres Arechagak legeari iruzur eginez aurkeztu ditu zor horiek.

Jauregiren seme-alabek Talleres Arechagako zenbait akzio dituztenez -% 0,5- enkanteko eskaintza handiena berdinduz eskuratu ahal izango lituzkete Arechagako akzioen % 49,5a.

Igogailu interaktiboak sortzeko aliantza sinatu du IZA enpresak



ERREDAKZIOA I
Aitor Fernandez de Pinedo

Iza igogailu enpresa Oboid StartUp arabarrarekin aliatu da igogailu interaktiboak diseinatu ahal izateko. "Visualiza" proiektuaren bidez interneterako konexioaz hornitutako panelak izango dituzten igogailuak diseinatuko dituzte.

Igogailuan bertan eguraldia ezagutu edo albiste-kanalak irakurri, mantenimendu-zerbitzuaren oharrak ikuskatu edo lursail-administratzailearen jakinarazpenak kontsultatzeko aukera eskaini nahi dute jadanik proba fasean duten proiektuaren bidez. Garatzen ari diren gailuak igogailuaren identifikazio-plaka ere ordezkatuko luke, azken mantentze-lanen dataren berri ere emanez. 2016 urterako lehen instalazioak burutzea espero dute auzo-erkidego pribatuetan zein eraikin publikoetan.

Komunikazioa denbora errealean

Berrikuntzak denbora errealeko komunikazio kanala eskainiko du mantentze-lanak zein larrialdi egoeren kudeaketari begira. Ekipamenduaren funtzionamenduaren inguruko informazioa biltzeko tresna eskainiko du izan daitezkeen akatsei aurre hartzeko aukera eskainiz eta ezbeharretan bideo-euskarria ere emanez.

Iza igogailu enpresak 50 urtetik gorako eskarmentua du igogailuak muntatzen eta mantentzen.

Bilbon egingo den Alternatiben Herrira joateko deia eskualdean

ERREDAKZIOA I
Txabi Alvarado Bañares

"Alternatibak dituen herria bizirik dagoen herria da". Lelo hori ardatz[1] hartuta Alternatiben Herria ekimena egingo da larunbat honetan (urriak 24) Bilbon, eta bertara joateko deia zabaldu dute Aiaraldeko Alternatiben Herria plataformaren baitan biltzen diren eragileek.

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren bultzatzaileek proposatutako ekimena da Alternatiben Herria. Eskubide Sozialen Kartaren helburua Euskal Herriko herritarrek dituzten eskubideen aldarrikapena egitea bazen, oraingoan Euskal Herrian dauden alternatibak aldarrikatzea da xedea[2], "beste jendarte eredu[3] bat" zehazten hasteko helburuarekin.

Sei ardatz. sei auzo

Ekintzaz betetako eguna izango da larunbata. Sei ardatz izango ditu: Ekonomia eredua, natura, bizitzaren iraunkortasuna, aniztasuna, ondare komuna, eta demokrazia, burujabetza eta parte hartzea. Larunbatean, Bilboko sei auzotan jorratuko dira sei ardatz horiek. Hitzaldiak, mahai inguruak, tailerrak, proiekzioak, azokak, kale-animazioa, bertsolariak, kontzertuak… makina bat[4] ekintza egongo dira, www.alternatibenherria.eus web-gunean kontsultatu daitezkeenak.

Aiaraldeko kideak ere

Bere garaian Eskubide Sozialen Karta eskualdean eztabaidatu eta jendarteratzen aritu ziren eragileak izan dira orain Aiaraldean Alternatiben Herrira joateko deia luzatu dutenak. Laudio zein Amurrion aritu izan dira ekimenaren gaineko informazioa zabaltzen.

Dozenaka norbanako zein kolektibok hartuko dute parte larunbateko zitan, baita Aiaraldeko batzuk ere. Franking Ez Aiaraldeko kideak adibidez, bertan egongo dira, haustura hidraulikoaren aurkako Euskal Herriko beste taldeekin batera.

Txutxi Ariznabarreta arrankudiaga-zolloarrak, bere aldetik, "Euskal Herria herritarren burujabetzarantz, erronkak eta eta estrategiak" mahainguruan parte hartuko du. Eskualdeko zenbait tokiko ekoizle ere bertaratuko dira Bilboko zitara.

Hiztegi lagungarria

Ardatz[1], ildo, funts, oinarri / Xedea[2], helburua / Eredu[3], modelo / Makina bat[4], asko

Inoizko bilketarik handiena izan du Arabako Txakolinak

ERREDAKZIOA I

Bere historiako mahats bilketarik handiena egin du Arabako Txakolinak, jatorrizko deitura[1] horren idazkari-gerentea den Jose Antonio Merinok adierazitakoaren arabera. 646.453 kilo mahats bildu dituzte guztira, iaz[2] baino %17 gehiago. Txakolinaren merkatuari dagokionez, Merinok jakinarazi du esportazioek bilakaera oso ona izan dutela eta barne merkatua ere "urtean zehar apurka-apurka igotzen joan dela".

Urtearen bilakaera "oso ona" izan dela azpimarratu du idazkari-gerenteak, mildiu edo brotitis bezalako gaixotasunek gutxi eragin izan dietelako mahastiei. Dena den, mahastibatzuetan iraila partean eman dira bi gaixotasun horien kasuan, eta horrek txakolindegi batzuek espero zuten uzta baino gutxiago jasotzea ekarri du.

Aiaraldean, 12 txakolindegi

Hamabi txakolindegi daude gaur egun Aiaraldean, horietako sei Arabako Txakolina jatorrizko izendapena dute. Jatorrizko izendapen horren upategi[3] guztiak Arabako upategi guztiak eskualdean daude.

Hiztegi lagungarria

Deitura[1], izendapena / Iaz[2], aurreko urtean / Upategi[3], bodega, txakolindegi

LAN ESKAINTZAK

Inkestatzailea (Laudio)
Garraio kudeatzailea (Laudio)
Mikroinformatika teknikaria (Amurrio)
Salmenta arduraduna (Laudio)
Biltegi langilea (Laudio)

Informazioa:
Amurrio Bidean Toki Garapenerako Elkartea

_jendartea

ESKOLA GARRAIOA

Ikasteko eskubidea gauzatzeko, garraioa oztopo

Autobus zerbitzuek dituzten gabeziak salatu dituzte Etxaurren Ikastolako eta Zaraobe Institutuko gurasoek, eta Leioako Campusera doazen ikasleek. Lehengo biek haur guztientzako garraioa aldarrikatzen dute. Leioako Campusera doazenek aldiz, zerbitzu hobeagoa eskatzen dute.



Arabako Hezkuntza Delegazioaren aurrean elkarretaratzea egin zuten Etxaurrengo gurasoek 2013an. / Guraso Elkartea

ERREDAKZIOA I Txabi Alvarado Bañares

Argi dago Aiaraldeko ume eta gazteek hezkuntzarako eskubidea dutela. Baina zenbait kasutan hutsuneak[1] daude eskubide hori bermatzerako orduan, ikasketa zentroetara iristeko erabili beharreko garraioan adibidez.

Hori argi dute dute Aiarako Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteko kideek. 2013an zirkular bat atera zuen Arabako Foru Aldundiak, zeinetan ebazten[2] zen ikastetxetik bi kilometrora edo gutxiagora bizi ziren ikasleek ez zutela eskubiderik izango garraio eta jantoki zerbitzuetan laguntzak jasotzeko. DBHko ikasleen kasuan, lau kilometrotan ezarri zuen muga.

Etxaurrengo Guraso Elkarteko kideek argudiatu zuten sakabanatuta dauden 24 herrik osatzen dutela Aiara, eta ikastetxera iristeko ez dagoela oinezkoentzako biderik, "trafiko handiko errepideak" baino ez. "Irtenbide bakarra ibilgailu pribatua erabiltzea da, eta horrek gastu handiagoa, errepidean arrisku gehiago eta lana eta familia uztartzeko[3] arazo handiagoak dakartza".

Horretaz gainera, jantokirako laguntzak kentzeak ume bakoitzeko urtean 300 euroko kostu gehigarria dakarrela salatu zuten.

Hori dela eta, gurasoek elkarretaratzea[4] egin zuten Arabako Hezkuntza Delegazioaren aurrean. PSE-EEko parlamentari eta Hezkuntza sailburu ohi den Isabel Celaak, bere aldetik, gaiari buruzko galdera egin zuen Eusko Jaurlaritzan.

Garai hartan hamabi umeri eragiten zien Aldundiaren zirkularrak. Aurtengo ikasturtean berriz, bederatziri. Bederatziek erabiltzen dute eskolara doan autobusa. Baina Guraso Elkarteko kide den Laura Guerrerok adierazi du ume horiek "salbuespen-egoera" batean daudela, "ez zaie zerbitzu hori erabiltzeko eskubiderik aitortzen". Horrek esan nahi du ikasturte bakoitzaren hasieran "matrikulazioei erne" egon behar direla, zenbat umeri eragiten dien ikusteko. "Zer gertatuko da noizbait ume horiek autobusean tokirik gabe geratzen badira?", planteatu du Guerrerok.

Herri txikietatik Zaraobera

Etxaurrengoa ez da kasu isolatu bat. Beste ikastetxe batzuetako ikasleek ere gabeziak dituzte autobus zerbitzuan. Amurrioko Zaraobe Institutua da horren adibide. "Zenbait lekutatik etortzeko garraio publikoa dago", azaldu dute Babio Guraso Elkarteko kideek, "baina beste hainbat lekutatik gerturatzeko (Aiaraldeko herri txikietatik adibidez) ez".

Batxilergoan edo Lanbide Heziketa zikloetan ikasten duten ikasleek ez dute garraio zerbitzurik jasotzen. "Orain beka bat hartzeko aukera daukate, baina beka lortu ezean guraso, langile edo senideek ekarri behar dituzte", adierazi dute Guraso Elkarteko kideek. Salatu dutenez ikasle batzuk garraioz "hiru aldiz" aldatzen dira ikastetxera iristeko. Horren aurrean hainbat soluzio planteatzen dituzte gurasoek: "Dauzkagun zortzi autobus-ibilbideak aprobetxatzea leku librerik egonez gero, edo 'lanzaderak' sortzea". Diru-laguntzak bermatzea ere proposatzen dute.

Etxaurren Ikastolako eta Zaraobe Institutuko guraso elkarteek salatu dituzte hutsuneak, bai eta Leioako campusera doazen ikasleek ere

Guraso elkartetik gogorarazi dute Hezkuntza Sailak hasieran esaten zuela "DBHko ikasle guztiak" garraiatu behar zituela, eta salatu dute gero "distantzien parametroak asmatu zituztela" eta "murrizketak" eman zirela.

"Amurrion ikasteko aukera publikoa ematen zaie ikasleei, baina autorik izan ezean ez dute etortzeko modurik", adierazi dute elkartetik.

Leioarako autobus zerbitzua

DBH edo Batxilergotik harago doan arazoa da garraioarena. EHUren Leioako Campusera doazen aiaraldearrek ere pairatzen dute. Badute campusera Amurriotik eta Laudiotik abiatuta iristeko autobus zerbitzu bat, Cuadrabus enpresak kudeatzen duena. "Urtean 800 euro inguru ordaintzen ditugu zerbitzu horregatik", adierazi dute problematika honi aurre egiteko udan sortu zen autobuseko asanbladako kideek. Arazo nagusia ez da prezioa, "horren prezio altuaren trukean eskaintzen den zerbitzu eskasa baizik".

Bi autobus baino ez dituzte ikasleek Leioara joateko, goizeko zazpiak aldera bata eta eguerdiko ordu-biak inguruan bestea. Hori dela eta, ikasle batzuk klasea izan baino hiru ordu lehenago iristen dira unibertsitatera. Eskualdera itzultzeko aldiz, bost autobus dituzte eguerdi eta arratsaldean. "Hori dela eta, ikasle askok klasetik lehenago atera behar izaten dute, autobusa galduz gero tarte luzez egon behar baitira itxaroten". Hori dela eta, beste garraio zerbitzu batzuen eskaintzak kontsultatzeari ekin diote asanbladako kideek, eta autobusaren kudeatzaileekin bilera bat egiteko asmoa ere dutela adierazi dute.

Hiztegi lagungarria

Hutsuneak[1], faltak, gabeziak / Ebazten[2], erabaki / Uztartu[3], bat etorri / Elkarretaratzea[4], kontzentrazioa



Asier
Amondo
AEK

_Hankamotz

Etorri ez badira etorriko direnei

Laster gure eskualdera helduko dira, dagoeneko heldu ez badira, hainbat siriar errefuxiatu. Pentsatzen dut Udal agintariek harrera egingo dietela. Gure bizimoduaren nondik norakoak, herrietan izan ditzaketen zerbitzuak, orain zerbitzu hartzaile izango direlako hainbatetan, gure hezkuntza eta osasun sistemaren onurak azaltzeaz gain, pentsatu nahi dut herri honetan euskara deritzon hizkuntza dagoela azalduko dietela, haiek hain urrutitik etorrita agian ezagutzen ez dutena, baina egun bizirik dagoena eta bizirautea nahi duguna.

Euskara badela esan beharko diegu eta euskara ikasteak ze nolako onurak ekar diezazkien. Baina horrez gain inguruko Udalek eta bestelako administrazioek erraztasunak eman beharko dizkiete euskara ezagutu eta ikasteko. Baten batek pentsa lezake euskara baino tripako min handiagoa dutela etorriko direnek, eta bai, hori ere egia izan daiteke baina euskarak ate batzuk zabaldu ahal dizkie, euskara beste hizkuntza, beste kultura bat ulertzeko bidea irekiko die. Euskara, beste hizkuntza guztien modura, munduko herritar guztien ondarea da. Aldi berean gu euskaldunok haiei hizkuntza, ondarea, kultura gorde dezaten eta gurekin konparti dezaten eska gura diegu, haiengandik zer ikasi asko badugulako eta gu ere aberastuko garelako haiekin. Aniztasunak gu aberasten gaitu eta gure herria aberasten du, aniztasunak haiek ere aberasten ditu. Nork bere hizkuntza zaindu eta erabili behar du, norberaren hizkuntza guztiona baita.



Galindezen omenez Amurrion dagoen eskultura. Bere aitak Larrabeoben zuen lursailean nahi zuen Galindez bere hilotza lurperatzea. Argazkia: Flickr-Tora tora tora

JESUS DE GALINDEZ: Idazle, politikari, eta espioi amurrioarra

1915eko urriaren 12an, Hispanitatearen Egunean, jaio zen Jesus de Galindez amurrioarra. Jaiotza-data ironikoa gaztetatik EAJri loturiko idazle, intelektual eta ustezko espioia izango zenarentzat.

ERREDAKZIOA I Txabi Alvarado Bañares

Pasa den urriaren 12an 100 urte bete ziren Jesus de Galindez jaio zela. Idazle, politikari eta ustezko espioia izan zen, baina horren guztiaren gainetik gauza batek bilakatu zuen ospetsu: bere desagerpen misteriotsuak.

Amurrio eta Madril artean jaio zen Galindez. Bera oso gaztea zela hil zitzaion ama, eta jesuiten eskola batean egin zituen ikasketak. Hala ere, uda partean Amurriora joaten zen oporretan, bere familiak herrian zuen etxera. "Ez dago Galindezek Amurriorekin zeukan harremanaren inguruko informazio askorik", azaldu du Aztarna etnografia elkarteko kidea den Ramon Zurimendik. Datu gutxi daude herrian igarotzen zituen oporraldien inguruan, baina Batzokian eskaintzen ziren euskara eta txistu klaseetara joaten zen Aztarnako kidearen arabera (egunkari honen portadan agertzen den argazkia da Galindez amurrion zegoela ateratako gutxietako bat).

Errepublika Dominikarrean deserriratua zegoela hasi zen FBIarentzat lanean, erakunde horren arabera

Amurrioko Batzokian txistu eta euskara klaseak jaso zituen

Gerra Zibilean presoen trukatzean egin zuen lan

Hildakoan, Amurrion lurperatua izan nahi zuen, baina inoiz ez zuten bere gorpua aurkitu

Gerra Zibila eta deserria

17 urterekin afiliatu zen Galindez EAJra, eta alderdi jeltzalearen gaztedietan militatu zuen unibertsitatean, Zuzenbide Politikoa ikasten zegoela. Handik hiru urte eskasera hasi zen Gerra Zibila. Justizia Ministroa zen Manuel de Irujoren laguntzaile bilakatu zen orduan, eta bi bandoetako atxilotuen trukatzetan lan egin zuen.

Bando errepublikanoak porrot egin zuenean, Frantziara egin zuen ihes, baina ez bertan geratzeko. 1939an Errepublika Dominikarrera joan zen. Bertako Eskola Diplomatikoan aritu zen irakasle, eta Kanpo Gaietarako Ministerioan ere lan egin zuen. Herrialde horretan Leonidas Trujillo zegoen boterean, eta diktadore horren semeetako baten irakasle izatera iritsi zen Galindez: Ramfis Trujillorena. Hainbat ikerlariren arabera, Ramfisek zeresan handia izan zuen, handik urte batzuetara, Galindezen desagerpenean.

Rojas agentea

1946. urtean greban zeuden azukre ekoizleekin akordio batera iritsi egin zen, Gutxiengo Soldaten Batzordeko idazkari[1] lanetan zebilela.

Handik gutxira, Trujilloren gobernuarekin zituen desadostasunak medio, Estatu Batuetara joan zen. New Yorken bizi izan zituen Galindezek bere azken urteak, bere bizitzako urte lauso[2] eta misteriotsuenak. Bizitza publiko nabaria egiten zuen garai horretan. Columbiako Unibertsitatean klaseak ematen hasi zen, eta hiriko bizitza sozialean ere asko inplikatu zen, Idazle eta poeta iberoamerikarren zirkuluan batik bat. Idazle moduan ere urte horiek izan ziren Galindezen oparoenak[3]. Eusko Jaurlaritzaren deserriko gobernuen ere parte hartzen jarraitu zuen, Agirre lehendakariarekin batera. Baina amurriarrak bazuen beste alderdi ezezagunago bat: Estatu Batuekin harremanetan zegoen espioiarena.

Informazio eta teoria asko daude Galindezek zerbitzu sekretuekin izandako harremanaren inguruan. Errepublika Dominikarrean hasi omen zen harreman hori, FBIak gaiaren inguruan desklasifikatutako dokumentuen arabera. Bertan zeuden nazien eta Espainiako komunisten inguruan informatzea zen bere eginkizuna.

Honako mezu hau bidali zion Arthur P. Dugan agenteak garai hartan FBIko buruzagia zen John Edgar Hooverri: "Galindezek zintzotasunez esan digu nahiago duela nazien inguruko informazioa eman Espainiako komunisten inguruko ekintzen berri ematea baino, hala ere komunisten inguruko informazio baliotsua eman ahal izan digu beti". DR-10 kodea egokitu zitzaion amurrioarrari. "Rojas agentea" izendatua izatera pasa zen gero.

Bere gorpua, Aiaraldera

Espioi moduan egin zuen lana bezain misteriotsua da bere desagerpena. 1956ko martxoaren 12an izan zen ikusia azkenekoz, metro geltoki batean. Honakoa idatzi zuen bere testamentuan: "Nire hilotza Amurriora eramatea eskatu nahi dut, bertan lurperatua izateko, nire aitak Larrabeoben duen lursailean". Baina bere gorpua ez zen inoiz agertu.

Hiztegi lagungarria

Idazkari[1], sekretario / Lauso[2], ilun, nahasi / Oparo[3], emankor, ugari

BIZITZA GORA BEHERATSUA

1915-1935: Gaztaroa
Gaztetatik EAJko kide izan zen. Amurrion igarotzen zituen udako oporrak.

1936: Gerra Zibila



Errepublikako Justizia Ministroaren laguntzaile izan zen, atxilotuen trukatzean lan egin zuen

1936: Dominikar errepublikara




Trujilloren semearen irakasle izan zen eta zerbitzu sekretuekin lanean hasi zen.

1946: Estatu Batuak
Columbiako Unibertsitateko irakasle izendatu zuten.

1956: Desagertzea
New Yorkeko metro geltoki batean ikusi zuten azkenekoz.

LAN NABARMENAK

"La tierra de Ayala y sus fueros"



Bere lehen liburua izan zen. 18 urte baino ez zituen idatzi zuenean.

"Los vascos en el Madrid sitiado"



Gerra Zibilean Madrilen bizitakoak jaso zituen Galindezek liburu honetan.

"La era de Trujillo"



Trujilloren gobernuaren salaketa argia eta Galindezen desagertzearen

The Galindez Case, oraindik erabat argitu gabeko kasua

Hipotesi asko plazaratu dira Galindezen desagertzearen inguruan, baina honakoa da hedatuena: Trujillo diktadorearen enkarguz bahitu eta Dominikar Errepublikara eraman zutela, bertan torturatu eta erailtzeko.



Galindez (ezkerretik hasita lehena) Aguirre lehendakariak 1950ean Caracasera eginiko bisita batean.

ERREDAKZIOA I
Txabi Alvarado Bañares

Urriaren 12an jaio zen Galindez. Noiz hil zen, berriz, ezin daiteke zehaztu. 1956ko martxoaren 12an desagertu zen. New Yorkeko metro geltoki batean ikusi zuten azkenekoz.

Handik zazpi urtera ofizialki hiltzat eman zuten. Hipotesi asko planteatu dira amurrioarraren desagertzearen inguruan.

Baina modu zabal batean onartua dagoena zera da: Trujillo diktadoreak agindu zuela Galindez bahitzea, Dominikar Errepublikara eramatea eta bertan sekretuan exekutatzea.

Zergatik? Trujilloren gobernuaren salaketa argia egin zuelako Estatu Batuetan zegoela, eta diktadoreari buruzko tesi bat idatzi zuelako. Tesi horretan aipatzen zen, beste gauza askoren artean, Trujilloren semea, Ramfis, ez zela diktadorearen seme biologikoa.

Iturri batzuen arabera, Trujillok 100.000 dolar eskaini zizkion Galindezi liburuaren truke, baina amurrioarrak ezezkoa eman omen zion.

Columbiako Unibertsitateak otsailaren 27an onartu zuen tesia, Galindez desagertu baino aste pare bat lehenago.

Oraindik ez dago guztiz argi Estatu Batuetako eta Espainiako zerbitzu sekretuek amurrioarraren desagertzean izan zuten erantzukizuna

Zerbitzu sekretuen inplikazioa

Beste alde batzuek desagertzean izandako inplikazioa da horren argi ez dagoena. Kasua sakonki ikertu duen Stuart McKeever abokatuaren arabera, Trujillok FBIko eta CIAko agente ohi bat kontratatu zuen bahiketa planifikatzeko.

Ikerlari batzuek defendatzen dute Estatu Batuetako zerbitzu sekretuek interesa izan zezaketela Galindezen desagertzean, Estatu Batuek nazien aurka borrokatzetik komunismoaren aurka zeuden diktadoreen lagun izatera emandako biraren "lekuko deseroso" bilakatu zelako. Frankoren gobernuak ere desagertzean interesa eduki zezakeela argi dago, Galindez beti azaldu baitzen gobernu horren eta Estatu Batuen adiskidetzearen aurka. Kasualitatea izan edo ez, Galindez desagertu eta biharamunean jarri zen Espainiako bandera Nazio Batuen Erakundearen egoitzan.


Hori bai, Galindezen desagertzea garesti atera zitzaion Trujillori. Desagertzearen lekuko izan ziren pertsonak erailtzen ahalegindu zen diktadorea, baina ezin izan zuen ekidin Estatu Batuetako iritzi publikoak berarekiko zuen pertzepzioa okertzea. Handik bost urtera erail zuten, segada batean.

_GALINDEZEN OIHARTZUNA

ZINEMAN.
2002an Ana Diezek amurrioarraren bizitza eta desagerpenari buruzko dokumentala aurkeztu zuen. Handik urte batera estreinatu zen istorio bera kontatzen zuen fikziozko filma: "The Galindez Case", Gerardo Herrero zuzendariak Harvey Keitel, Saffron Burrows edota Guillermo Toledo aktoreekin grabatutako nazioarteko ekoizpena.



LITERATURAN.
Liburu askok jorratzen dute Galindezen kasua. Gehienak informazio liburuak dira, kasuari buruzko ikerketak. Horien artean aipatzekoa da Manuel de Dios Unanuek idatzitako "El caso Galindez: Los vascos en los servicios de inteligencia de EEUU" liburua. 1992an erail zuten Unanue, Galindezenaren pareko modu misteriotsuan. Eleberriei dagokionez, "Galindez" lana aipatu daiteke, Manuel Vazquez Montalbanek idatzitakoa. Enrique Lafourcade idazle txiletarrak, bere aldetik, amurrioarraren heriotzaren irudikapen bat egin zuen "La fiesta de rey Acab" liburuan.



_kultura

ARIMEN GAUA, DOMU SANTUA, HALLOWEEN

Kalabazak Aiaraldean, halloween amerikarra heldu baino lehen

Halloween Estatu Batuetatik ekarritako ohitura dela esan ohi da sarri. Baina Aiaraldeko zenbait txokotan bazeuden antzeko ohiturak Amerikakoak ezarri baino lehen. Kalabazak izutzeko erabiltzea, adibidez, aspaldiko ohitura da Artziniegan, Orozkon eta Luiaondon. Hori bai, ez beti Arimen Gauari lotuta.

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru Saez

Domu Santu bezperan, urriaren 31n hain zuzen, hainbat ume aterako dira kalera mozorrotuta Halloween ospatzera, "sari edo ziri[1]" oihukatuz. Jende askok Estatu Batuetako kolonialismo kulturalaren itzala ikusiko du jarduera horretan, baina baita hemengo ohituren isla ere.

Horien artean Jose Luis Fernandez Zurbitu dago. Artziniegako Etnografia Museoko kide horrek 70 urte ditu. Bere ustez, Halloween jaiak ordezkatu ditu hemen zeuden ohiturak: "Umeak ginenean, urrian, Domu Santu Eguna hurbiltzen zenean baratzetara jotzen genuen eta kalabazak hartzen genituen. Goitik mozten genituen eta hustu ostean begiak eta ahoa egiten genizkien kandela barruan sartzeko. Frontoiaren aurrean zegoen horma baten gainean hiru jartzen genituen eta oso beldurgarria zen".

Artziniegarrak ez du gogoratzen zergatik egiten zuten. "Ziurrenik ume nagusiak ikusi genituen hori egiten eta kopiatu egin genuen". Hala ere, Zurbituk uste du ohitura hori garaiari eta Domu Santu Egunari lotua zegoela: "Urte horietan herrian 4 argi zeuden eta iluntasunari eta hilerriari beldurra genien, bat-batean kalabaza horiek ikusteak eragin handia zeukan".

Zentzu horretan, ezberdintasun handia sumatzen du Halloween eta Domu Santu edo Arimen Egunaren artean: "Egun horiek ez ziren jaiak. Umeak ez ginen ateratzen kalera gauez, gehienez gizonak joaten ziren tabernara. Kalabazak eta izarak ere erabiltzen ziren jendea izutzeko baina oso txantxa[2] astunak ziren. Behin, broma horren baten ondorioz pertsona batek eroetxean bukatu zuen".

Arimen gaua ospatzeko, Artziniegako Museoan bisita gidatu berezia egingo dute urriaren 30ko gauean. Dena den, kalabazen ohitura ez zen Artziniegakoa bakarrik. Anuntxi Arana Luiaondoko antropologoak antzeko pasadizoak[3] berreskuratu ditu bere herrian zein Orozkon. Lortutako testigantzek ziurtatzen dute kalabazen bitartez jendea izutzeko saiakerak egiten zirela.

Baina, hori bai, Aranak ikertutako gertakariak ez zeuden Domu Santuari lotuta. Deskribatutako pasadizoetan beldurrak sorginetan zeukan sorburua. Aranak Orozkon jasotako kondaira baten arabera, mutil batek kalabaza bati ahoa eta begiak egin ondoren kandela sartu zion. Mutilak bere burua izara zuri batez estali zuen, eta emakume bat ikaratzen saiatu zen. Baina neskak, koldartu ordez, aizkora hartu zuen defendatzeko eta mutilak hanka egin behar izan zuen.

Antzinan kalabazak jendea izutzeko helburuarekin erabiltzen zirela dioten testigantzak jaso dira Artziniegan, Luiaondon eta Orozkon

Domu Santu Egunean Laudioko zinegotziek hildakoen aurrean zin egiten zituzten karguak

Kondaira horren arabera, Garizuman erabiltzen ziren kalabazak herritarrak beldurtu asmoz. Baina, arestian esan bezala, ikarak sorginekin zeukan harremana, ez hildakoekin.

Hildakoak

Halloweenek "All Hallows' Even" -Domu Santu Eguneko bezpera ingelesez- jai kutsua hartu du Estatu Batuetako kulturaren bitartez, eta egun Aratusteen antza gehiago dauka Arimen Gauarena baino. Hala ere, antzina hildakoen omenezko data zen Domu Santua, eta gozatzeko grina azaleratzeko baino heriotza presente izateko eguna zen, gertuko hildako pertsonak gogoratzekoa, alegia. Jende ugari hilerrira joaten zen bere senideak edo lagunak oroitzera. Ohitura hori orain dik errotuta dago hainbat jenderen artean eskualdean.

Hildakoen eta arbasoen arteko lotura hori bereziki adierazgarria da Laudion. San Migel egunean alkatea hautatzen bazen, zinegotziek hilerrian zin egiten zituzten euren karguak, bere arbasoen eta herriko hildakoen aurrean. Natxo Urkixo alkateak horren aztarnak topatu ditu udal aktetan. Dokumentu horien arabera ohitura indarrean egon zen XVI. mendetik XIX. mendera arte.

Hiztegi lagungarria

Ziri[1], broma / Txantxa[2], broma / Pasadizoa[3], anekdota





Mikel
Ayllon
IDAZLEA

_Kamerinoa

Antzoki baten alde

Gaur zain egon behar izan natzaio Mariri, kaleak garbitzeko autotxoaren barruan.

Ogi bat besapean eta galletatxo kutxa bat eskuan iritsi da, berandu.

-Okindegitik nator. Nire urtebetetze-eguna da –bota dit autotxoaren atea ireki eta haize bafada izoztu batekin batera barrura sartu denean–. Okinarekin hizketan egon naiz eta... –galleta kutxari kanpoko zorroa hala-nola kentzen ahalegintzeko isildu da tarte batez. Tarte labur batez– ...eta esan ez dit ba atzo merkatariek bilera egin zutela eta aho batez onartu zutela gure herrian antzoki bat behar dela eta udalari eskatuko diotela, gure kaleek bizia berreskuratu behar dutelako, eta jendea erakarri behar delako, gero eta hilago dagoelako dena, denda ugarik itxi dutelako, eta ezin dugula ingurukoak baino gutxiago izan, eta berehala behar dugula antzoki berri eder bat, begiratzeko Bilbo, han badutela Guggenheim, eta turistak barra-barra doazela pintxoak jatera, eta, bide batez, praka berri pare bat ere erosten dituztela eta... a, eta kultura oso gauza inportantea dela, noski.

Keinu zatar batekin galleta bat eskaini dit. Berotzen ari da.

-Kasu! Laster, merkatariek erabakiko dute nora joan behar dugun, zer ikusi behar dugun, zer sortu, zer entzun, zer sentitu...

-Laster? Joder, Mari, ongi etorri kapitalismora!


_kultura

_kultur leihoa



Lander Arteaga
ZINEMA

Amama



Zuzendariak: Asier Altuna
Aktoreak: Iraia Elias, Kandido Uranga, Klara Badiola, Ander Lipus...
Iraupena: 103minutu

Bi munduren arteko gatazka. Bi bizimoduren arteko borroka. Hiru anai-arreba bizitzan euren lekua bilatzen. Bi guraso seme-alaben erabakiak epaitzen; bat hitzen bidez, bestea isilik, begirada sakonen bitartez. Irtenbide errazik ez dago, zauririk gabeko erabakirik ezta.

Sakon ezagutzen duen mundu baten inguruko hausnarketa sakon eta, batzuetan, hunkigarri bat aurkezten digu Asier Altunak Amama film berrian. Bere lagun eta ohiko lankidea den Telmo Esnalekin batera idatzitako gidoi zoragarri baten bitartez, pelikula honek baserrien bizimodua eta zailtasunak aurkeztuko dizkigu, gatazka hori bere barnean bizi duen familia batekin. Testu zoragarri bat. Istorioa aurkezteko, Altunak lan txukuna egin du; baserri familia baten gatazkak bizipen unibertsal batean bihurtuz. Begiradak eta isil uneak dira protagonista, lehia gogor baten lekuko. Tradizioz beteriko irudiak modu "moderno" baten bitartez erakutsiz.

Begirada hauek aurkezten Amparo Badiola, Ander Lipus, Iraia Elias, Kandido Uranga, Klara Badiola, Manu Uranga eta Nagore Aranburu. Guztien lanak hunkigarriak dira, baina bi dira guztien gainetik goraipatu behar direnak: Iraia Elias, alabaren begiraden jabea, eta Kandido Uranga, aita zorrotza antzezten duena. Aurtengo Zinemaldian, Amama filma Euskal Zinemaren Irizar sariaren irabazlea izan zen. Igande honetan (urriak 26) Amurrioko Antzokian proiektatuko dute 20:00etan.

Diego Martin Etxebarria amurrioarra garaile Tokioko Nazioarteko Zuzendaritza lehiaketan

ERREDAKZIOA I

Diego Martin Etxebarria opera zuzendari amurrioarrak lehen saria lortu du Tokyo International Music Competition for Conducting lehiaketan. Igandean ospatu zen lehiaketaren finala.

239 parte hartzaile

Mundu osoko 239 zuzendarik hartu dute parte hiru urtean behin egiten den norgehiagoka horretan.

Parte hartzaile horien guztien artean lau finalista hautatu zituzten. Eskualdeko artistak Piotr Ilitch Tchaikovsky-ren "Bosgarren Sinfonia" eta Johannes Brahms-en "Haydn-en lan baten bariazioak" zuzendu zituen finalean.



Egun, Diego Martin Etxebarria Berlingo Staatsoperen dabil lanean opera zuzendari moduan.

Aiaraldeko Soinu Sistema, bi urte musika astintzen

Bi urte igaro dira eskualdeko DJ eta abeslari batzuek Aiaraldeko Sound System kolektiboa sortu zutenetik.

ERREDAKZIOA I Txabi Alvarado Bañares

Soinu ekipo batekin dabilen DJ eta abeslari talde bati deritzo Sound System. Jamaikan sortu zen hitza, reggae eta antzeko musika estiloen baitan. 80. hamarkadan Europara egin zuen salto, Ingalaterrara. Eta duela bi urte Aiaraldera iritsi zen, Aiaraldeko Sound System kolektiboaren jaiotzarekin.

"Eskualdeko musika eskaintza irekitzeko helburuarekin sortu genuen", azaldu du taldeko kide den Xabier Berganzak. Hasieran lau DJk eta abeslari batek osatzen zuten soinu sistema. Orain, baina, bederatzi dira: sei DJ eta bi abeslari.

Eskualdeko Gaztetxeetan hasi ziren musika jaialdiak antolatzen, toki bakoitzeko soinu ekipoa erabiliaz. Handik gutxira, baina, soinu ekipo propio baten beharra zutela ikusi eta hura eraikitzeari ekin zioten. Duela gutxi amaitu dute. Makina bat[1] jaialditan egon dira musika eskaintzen, eskualdean zein eskualdetik kanpo, eta apurka apurka eskualdean musika mota horrekiko dagoen zaletasuna handitzen doala uste dute. "Hemen lehen ez zen *sound system* bat zer zen ezagutzen", azaldu du kolektiboko kide den Erlantz Serranok, "baina orain badabil poliki-poliki zabaltzen".

Urteurren festa, urriaren 31n

Bi urte bete dituztela ospatzeko jaialdia egingo dute Sound System-eko kideek. Datorren urriaren 31n izango da zita, Laudioko Gaztetxean. Crudobilbao Sound-en "reggae ilun eta potentea", Vloque&Novato eta Bengo raperoen bertsoak eta Aiaraldeko Soinu Sistemako kideen musika entzun ahal izango dira bertan.

Etorkizunerako bi helburu dituzte Aiaraldekoek: eskualdeko oholtzetara kanpoko DJ eta abeslari gehiago ekartzea eta duten soinu ekipoa osatzea, "oraindik asko hobetu daiteke eta".

Hiztegi lagungarria

Isurtzea[1], erortzea / Oholtza[2], eszenatoki



Bi obra ikusgai datozen asteetan Antzerki Amateur Erakustaldiaren IV. edizioan



ERREDAKZIOA I

Iragan larunbatean hasi zen Amurrioko Antzerki Amateur Erakustaldiaren laugarren edizioa.

Egun horretan izan zen ikuskizunen lehen emanaldia. Caraccota taldeak "Ay carmena!" antzezlana taularatu zuen. Erakustaldia bi aste gehiagoz luzatuko da. Besteak beste, urriaren 24an Brooklyn obra antzeztuko dute Tatro Venenoko kideek.

Hurrengo asteburuan (urriaren 31n) El bardo taldearen txanda izango da. Federico Garcia Lorcaren "Bodas de sangre" lana eramango dute oholtzara.

Erakustaldiko emanaldi guztiak Amurrioko Antzokian izango dira, arratsaldeko zortzietan.

Aimara antzerki talde amateur amurrioarrak antolatutako ekimena da erakustaldia.

Urduñako historia burdinaren bitartez erakusten duen espozisioa prestatu dute



ERREDAKZIOA I

Urduñako Adratan elkarte etnografikoak erakusketa jarri du turismo bulegoan Bizkaiko Ondare Historikoaren Jardunaldi Europarren harira. Esposizio horretan historian burdinari zer nolako erabilerak eman zaizkion islatu dute, hainbat pieza zahar baliatuta.

Telebista pantaila bat ere dago esposizioan, zeinetan ikusleak beste hainbat piezaren argazkiak eta informazioa kontsultatu ahalko dituen. Urriaren 31ra arte egongo da esposizioa ikusgai, Turismo Bulegoan. Urriaren 17, 18 eta 24an, berriz, bisita gidatuak egingo dira hirian, "Urduña: burdina, artea eta hiria" izenpean. Bisita gidatu guztiak 11:30etan aterako dira turismo bulegotik. Lehengo biak gaztelaraz izango dira; 18koa, aldiz, euskaraz.



Mateo Pagazaurtundua
IRAKASLEA

_Lurpetik

Belar fin-fina hilerrian

Sukaldetan ahoen kopurua zenbakaitza zenean eta kortetan: behi, zekor, asto, txerri, oilo, koneju eta abar luzea izaten ziren garaian, lehenengoak elikatzeko bigarren multzokoentzat belarra topatu behar: baserriko landak, bidexkak, muinoak, bazterrak eta bestelakoetan nahiko izatera ez ziren heltzen maiz.

Orozkoko Ibarra auzoan eta Olarte elizaren aurrean hilerri belartsu bat zegoen inguruan belar aleak topatzea ezinezkoa zen unean, iluntzean, inguruko baserritar batek (segurtasuna dela eta, hobe izenik ez aipatzea) igitaia, zestoa hartu eta hilerrian zebilen isiltasun ederrean belar samurra batzeari ekin zion.

Harresiaren kanpoaldean, asmo gehi tresna berberekin bigarren baserritarra prest harresiaren zailtasuna gainditzeko, dena batera ezin igo eta, lehenengo igitaia bota zuen barrurantz harlosan baten aurka "klok"soinua eginez.

Barruan zegoen lehenak, harriturik, zentzu guztiak erne jarri zituen. Jarraian, kanpo aldekoak zestoa bota zuen barrura aztrapalea handiagoa sortuz.

Lehenengoak, hori entzutean, tresneria guztia bertan utziz, ziztu baten harresiaren gainetik salto egin eta abiadura bizian urrundu zen gau ilunean.

Bigarrenaren harridura eta ikara ez ziren txikiagoak izan eta "berpiztuaren" kontrako norabidean bere korrika saioari hasiera eman zion.

Non eta noiz gelditu ziren? Kontalariak ez zuen horren berri eman, zoritxarrez.

_kirola

MENDI LASTERKETAK

"Gero eta helburu handiagoak lortzen ari naiz eta nire buruari erakutsi diot gai naizela"

ZURIÑE FRUTOSek (1986, Artziniega) Espainiako Kopako mendi lasterketan 5. postua lortu berri du Murtzian jokatu den azken proban. Grifone taldeko korrikalariak denboraldi honetan egindakoak eta hemendik aurrera dituen asmoak kontatu ditu.

ERREDAKZIOA I Xabi Zalbide

Murtziatik itzuli berria zara, Espainiako Kopako azken probatik. Nola joan dira egun hauek eta lasterketa?

Aurreko astean kili-kolo ibili nintzen, belaunean lesio txiki bat daukadalako eta enbarazu apur bat ematen didalako. Ez nekien amaitzeko gai izango ote nintzen, baina azkenean oso ondo atera zen lasterketa; indartsu ibili nintzen 20. Km-ra arte, eta gero, 6 km-ko jaitsiera tekniko batean, hasi nintzen belauneko mina igartzen[1]. Kontuz ibili nintzen tarte horretan eta helburua lortu nuen, lasterketa amaitzea. Eta gainera 5. postuan.



Zer moduz Espainiako Kopa? Zer nabarmenduko zenuke?

Gustura ibili naiz, eta oso pozik sailkapen orokorreko 5. postu horrekin. Nabarmenduko nituzke paisaia anitzak, mendiak, desnibelak, altuera handiak, baita distantzia ere; izan ere, ez nengoen halako distantzia luzeetara ohituta, duela gutxi hasi nintzelako mendian korrika, eta gure inguruetako mendietatik gainera.

Beste lasterketa askotan ere oso aurrean ibili zara, baita irabazten ere. Pozik denboraldiarekin?

Benetan pozik, bai. Apurka-apurka banoa helburu handiagoak lortzen eta nire buruari demostratzen zertarako gai naizen.

Zer edo zer aldatu duzu entrenatzeko moduan iazko denboraldiarekin konparatuta?

Bai, ezaguna nuen prestatzaile batekin jarri nintzen harremanetan, eta orduz geroztik berak zuzentzen dizkit entrenamenduak eta elikadura.

Aitortzen dut norbait behar dudala jarraibideak emateko, motibatzeko, horrek derrigortzen nauelako hobetzen segitzera.

Eta ez pentsa, hala ere agindutakotik %70 baino ez dut egiten, kar kar kar.

> *"Belaunean lesio txiki bat daukat eta enbarazu apur bat ematen dit, ez nekien amaitzeko gai izango nintzen"*

> *"Nire asmoa beste urte batez horrela jarraitzea da eta gauza berriak edo ezberdinak frogatzea"*

Zelako entrenamenduak egiten dituzu?

Asteanegunbatean edo bitan atsedena hartzen dut. Menditik larunbat-igandeetan ibiltzen naiz, denbora gehiago dudalako. Gainerako egunetan asfaltoan egiten dut korrika, edo igerilekura joaten naiz. Bizikletan ere ibiltzen naiz, eta ahal bada aste barruan mendi apur bat ere egiten dut.

Eta elikadura ere aipatu duzu. Zeintzuk dira elikatzeko jarraitzen dituzun irizpideak?

Garrantzitsuena da gozoki eta 'gominolak' dietatik kentzea, eta ondo jaten ikastea; lasterketetan eta entrenamenduetan proteina, hidrato eta abarren gastu handia egiten da eta karga egokia egiten ere ikasi beharra dago.

Zelan planteatuko duzu udazken-negua lasterketa eta prestaketa aldetik?

Patxadaz[2]. Ahal den neurrian gogokoen dudana eginez. Eskiatzera joan gura dut, badirelako 10 urte joan ez naizela. Duatloiren bat ere egingo dut eta krosetan ere hasi gura dut. Hori dena belaunak errespetatzen banau.

Aurreko urteetan bezala lokotx-bilketan ibili zara lehiatzen eta duatloietan ere hasi zara denboraldiaren azken txanpan. Nondik ateratzen duzu energia?

Energia ez dakit. Nik uste dut disfrutatzeko eta gauzak egiteko gogoa dela duela hilabete batzuetatik hona izan dudana. Urtea presio handiagoarekin hasi zen, gauza arraroak gertatu zirelako nire lehengo klubean, baina orain ondo nago. Eta bai, nire asmoa beste urte batez hala segitzea da, eta gauza berriak edo ezberdinak egitea. Baina beti ere, larritu barik eta egiten dudan horrekin gozatuaz.

Esan duzun bezala, duatloiak, krosak, trailak... Korrika egitea da gehien gustatzen zaizuna? Noiz hasi zinen?

Ez dakit gehien gustatzen zaidana ote den, baina bai gehien egiten dudana. Duatloietan denbora gutxi daramat baina gustua hartzen ari natzaio, nahiz eta bi baino ez ditudan egin. Duela hiru urte hasi nintzen asfaltotik korrika eta lasterketa laburretan parte hartzen. Gero animatu ninduten mendian hastera eta gehiago gustatu zitzaidanez berton geratu naiz. Mendian aritu naizen bigarren urtea da.

Zergatik?

Betidanik izan naiz kirolaria, 6 urte nituenetik areto-futboleko jokalaria izan naiz. Beraz, futbola utzi nuenean, korrika egiten hasi nintzen kirola egiten jarraitzeko.

Lasterketa bat baino lehen, tokira heltzen zarenean eta dena prest dagoela ikusten duzunean, zer sentitzen da?

Nerbioak eta zalantzak hasten dira. Ondo egiteko gogoa ere nabaritzen dut. Ahalik eta arinen hasi eta amaitu nahi izaten dut.

Bukatzeko, kontatuko diguzu lasterketaren batean gertatutako bitxikeriaren bat?

Lasterketa guztietan dago gauza txikiren bat, baina anekdota moduan esango nuke mendiko nire lehenengo lasterketan gertatutakoa: Amurrioko lasterketa laburra zen eta korrika egiteko oinetakorik gabe joan nintzen.

Eskerrak etxetik hurbil nengoen; deitu eta laster batean ekarri zizkidaten!

Hiztegi lagungarria

Igarri[1], nabaritu / Patxadaz[2], lasaitasunaz /

MENDI ERRONKAK:

Xabi Abajo 7 aldiz jarraian igo da korrika Urduñako Ama Birjinara



ERREDAKZIOA I Irati Moreno

Eskualdean badira mendian lasterka aritzea (trail egitea) gustuko duten korrikalari asko. Badira ere hainbat trail talde, hala nola, Amurrioko Trail taldea, Orkatzak, Mugagabe... Baina denek ez dituzte erronkak eta errekorrak betetzen.

Xabi Abajo urduñarrak erronka berri bati aurre egin zion igandean. Urduñako Birjinara 7 aldiz jarraian igo zen, korrika. Erronkari "La heroica" izena jarri zion Abajok.

Marka hausteko gainera, 12 ordutan egin behar zituen 7 igoera eta jaitsierak. Korrikalariak 11 ordu eta erdi behar izan zituen horretarako. 7:00etan hasi zuen lehenengo igoera Foru Plazatik. Ibilbideak 75 kilometroko eta 4.700 metroko desnibel positiboa zuen. Lagunen laguntza izan zuen igoera bakoitzean

Babiora 12 aldiz

Amurrio Trail taldeko kide diren Iñaki Ibarrolak eta Xabi Alonsok ere errekor berria egin dute. Babiora 12 aldiz jarraian igo dira, korrika eginez, noski. Urriaren 10ean egin zuten eta guztira 11 ordu behar izan zituzten, jateko eta edateko tarteak barne. 63,2 kilometro egin zituzten goizeko bostetan abiatuta 3.240ko desnibel positiboarekin.

Aspaldi egindako erronka batetik dator marka berri hori. Babiora igotzeak arrakasta handia zuen eta askotan igotzen ziren. Orduan trail taldekoek erronka hori sortzea erabaki zuten. Hori bai, bi "arau" daude. Bata, goian dagoen artzainarekin argazkia atera eta WhatsApp taldera bidaltzea; eta bestea, errekorra bakarrik igoera batek markatuko duela. Hau da marka 11 igoeretan baldin badago, nahiz eta 13 aldiz igo, 12 kontatuko dutela. Izan ere ultra trailak egiten dituen jende asko dago eta muga bat jartzea erabaki zuten.

Taldeak dio edonor animatu daitekeela erronka hau egitera: "Ea haien 12 igoerak gainditzen dituen errekor bat lortzen duen baten batek".

Azaldu dutenez, Babioko erronka gainditzen dutenek txapela eta guzti eramaten dute. Izan ere, errekor batetik beste batera pasatzean, txapelak ere buru batetik bestera egiten du salto.

_kirola

LAUDIO IGERIKETA KLUBAK 25 URTE



Laudio Igeriketa Klubak 25 urte bete ditu. Gaur egun, kluba 115 igerilarik osatzen dute, 4 eta 22 urtera bitarteko neska-mutilek. Entrenamenduak irailean abiatu zituzten. Lasterketak, ordea, urriaren 31n hasiko dira federatuentzat eta azaroaren 14an eskolartekoan aritzen direnentzat.

TENISA:

Amurrioko Tenis Sustraia taldeak ikastaroak antolatu ditu, adin guztietako pertsonentzat

Klaseak astearte, asteazkenen eta larunbatetan izango dira. Kategoria bakoitzak ordutegi bat izango du. Asteburuetako ordutegia malguagoa izango da. Izena emateko honako zenbakira deitu behar da: 661 326 099 (Borja). E-mail bidez ere gin daiteke tenis.sustraia@hotmail.com helbidean.



BABES PERTSONALA:

Babes pertsonalerako ikastaroa antolatu du Bushikan Kirol Klubak, Laudioko Kiroldegian

Astelehen eta asteazkenetan arratsaldez eskainiko da ikastaroa, 19:00etatik 20:30era, eta astearte eta ostegunetan, berriz, goizez, 10:00etatik 11:30era. Larunbatetan bi orduko klasea izango da, 10:30etatik 12:30ak arte. Izena emateko 669814675 edo 687736725 telefonora deitu behar da.

MENDI IBILALDIA

Gorobel Ibilaldian izena emateko epea, zabalik



25 eta 35 kilometrotako ibilbideak egongo dira. Argazkia: aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA I Irati Moreno Fernandez

Mendiko Lagunak taldeak, urtero legez, Gorobel Ibilaldia antolatu du. Aurten XIX. edizioa izango da eta azaroaren 1ean egingo dute. Urriaren 29 arte dago apuntatzeko epea zabalik.

Izen ematea bi modutan egin ahal izango da. Batetik, www.mendikolagunak.blogspot.com.es web gunearen bitartez. Eta, bestetik, Mendiko Lagunak taldearen egoitzan. Astearte eta ostegunetan dago zabalik egoitza, 19:00etatik 21:00etara. Federatuek 4€ ordaindu beharko dituzte eta federatuak ez direnek, 6€.

Ordainketa egiteko bi kontu korronte jarri dituzte: Laboral Kutxa (3035 0089 12 0891003159) eta Kutxabank (2095 0059 41 1091116383). Ibilbidean zehar argazki eta bideo laburren lehiaketa ere egongo da.

Ibilbidea

Bi martxa egongo dira, luzea eta laburra. Handiak 35 kilometro izango ditu eta goizeko 7:30ean aterako da Amurrioko enparantzatik.

Txikia, berriz, 25 kilometrotakoa da eta 8:05ean aterako da plazatik. Kontrolpeko irteera egingo dute tren geltokiraino, bertan 8:15ean tren berezi batek ibilbidearen hasieraraino gerturatuko baititu mendizaleak. Parte hartzaileentzako txartelak jasotzeko tartea 6:30etik 8:00etara izango da.



AMURRIOKO MENDI DUATLOIA: 71 korrikalarik parte hartu zuten Amurrioko Mendi Duatloian. Gizonezkoetatik Julen Larruzea izan zen garaile eta emakumezkoetan, aldiz, Maritxel Henales. Eskualdeko korrikalariek ere marka onak egin zituzten.

Gimnasia Erritmikoko Euskadiko Txapelketa

"Aresketako jubenil taldea Euskadiko txapeldun"

Aresketa Gimnasia Erritmiko kluba

Aresketa taldeko oinarrizko jubenil taldea izan zen garaile Taldekako Euskadiko Txapelketan. Lehiaketa Gasteizko San Andrés kiroldegian izan zen urriaren 17an. Lehenengo txandan ariketa bikaina egin zuen taldeak eta bigarren txandako lana gehituta, beste taldeekiko diferentzia handia lortzea ekarri zuen horrek.

Aresketa taldeko gimnastek irailean ekin zioten ikasturteari. Adinaren eta mailaren araberako hainbat talde ezberdin daude. Ikasle mailakoek martxoan izango dituzte lehen lehiaketak, banakakoak zein taldekakoak. Federatuak, aldiz, martxotik ekainera arituko dira banaka, eta irailetik abendura taldeka. Hala, ariketa bakoitza hobeto prestatzeko aukera izaten dute, urte-sasoi bakoitzean ariketa bat bereziki entrenatuz.

Iaz klubak oinarrizko kadete taldea izan zuen, eta aurten gimnasta berberek osatu dute taldea, oinarrizko jubenil kategorian lehiatuz: Idoie Velez, Irene Esparza eta Paula Lopez urduñarrak; Nerea Monasterio amurrioarrak eta Maialen de la Peña bilbotarrak.

Denboraldia urriaren 4an hasi zuten Donostian, Izarleku txapelketarekin. Hasiera ezin hobea egin zuten lehen postua eskuratuz, Euskadiko eta inguruko taldeen aurka lehiatuta.

Taldearen hurrengo hitzordua urriaren 24an izango da Gasteizko San Andres kiroldegian, Gasteizko Hiria Sarian.

Euskadiko Txapelketaren emaitzarekin, Espainiako Oinarrizko Txapelketan egoteko aukera izango dute. Zaragozan izango da azaroaren 20tik 22ra. Taldea iazko postua hobetzeko gogoekin joango da txapelketara.

Horren aurretik, ordea, azaroaren 7an Gasteizko Buesa Arenan lehiatuko den Euskalgym txapelketan izango da Aresketa. Bertan Espainiako talde ugari bilduko dira eta, hortaz, maila handiko lehiaketa espero da. Gainera, egun horretan bertan, Euskal Gimnastika Federazioak Euskalgym ikuskizuna antolatuko du, non munduko puntako gimnastak egongo diren: Mamun (munduko lehena uztailarekin), Staniuta (munduko hirugarrena), Rizatdinova... Azken urteetan ETBk ikuskizuna grabatu eta telebistan eman du handik egun gutxira. Informazio guztia www.euskalgym.com web orrian aurkituko duzue.

Aresketa klubaren eta bere oinarrizko jubenil taldearen nondik norakoak jarraitu nahi badituzue, www.aresketagimnasia.net–en eta Facebook zein Twitter sare sozialetan dago eskura.





Espainiako Oinarrizko Txapelketan egon ahalko dira Aresketakoak. / Aresketa

_Herriko plaza

_agurrak **Bidali zure zorion agurra egunkaria@aiaraldea.eus helbidera urriaren 30a baino lehen**



Mikel

Zorionak Mikel! Ondo pasa zure urtebetetzean, merezia duzu. Zure kuadrila buenorroarren partez.

"Kaskarrekoak"



Araitz/Ainhoa

Gure txikitxuek 15 urte betetzeak, liburuak alde batera utzi eta ondo ospatzea merezi du. 15 muxu zuentzat bientzat!

Aukeratutako familia



Irene

Zorionak Lateorroko sorgintxoa! Disfrutatu gaur eta beti! Musu eta besarkada beroa zure koadrillaren partez. Bizi, gozatu eta maitatu!

Koadrila



Aritz

Zorionak Aritz!! Azkenean heldu da zure egun a. Bikain pasatu ezazu zure urtebetetzean! Zorionaaaaaaaaaak!!

Familia



Larri

Animaliak sendatu beharrean bere burua sendatu beharko zuenari, jarraitu mundua irribatekin alaitzen. Zorionak potxolita!

Ziripot eta Ziripot ez dena




Leire

Zorionak maitia!!! Maite zaitugu, ez zaitez aldatu!! Eta OSO-OSO ONDO pasa ezazu zure urtebetetzean!!!

Zure klaseko lagunak


_denborapasak



		Senidea ❖ IZENA	▼	Sakanako herria / Murgiltzen dena	▼	Hegaztien kaka	▼	Joan den urtean
▶		▼		▼		2 / Modua	▶	▼
		Egokiera, parada / Mirakuluz	▶			▼		
▶								
Akerraren emea ❖ DEITURA	▼	Ez ilun / Araiako	▼	Menturaz / Urrearen ikurra	▶			Animalien presondegia
▶		▼		▼	Ikasturtearen hasieran / Zezen zikiratuak	▶	Nor, pluralean / Gipuzkoako udalerria	▶ ▼
Harrotasuna / Gizon izena	▶				▼		▼	Bokala / Bi gehi bat ▶
▶				Dago / Bromoaren ikurra	▶	Landare mota / Festa, besta	▶	▼
Titanioa balio du / Janari ongailua	▶		Berriz jaio / Musika nota	▶ ▼		▼		
▶			▼				Arloaren erdian / Potasioa balio du	▶
Ipar Euskal Herrian, era	▶			Ergela	▶		▼	

❖ Orkestra zuzendari amurriarra.

_eskelak



Sabino Ibarluzea Busto

(MAITE ETA IÑAKI IBARLUZEAREN AITA)

Heriotzaren ondoren,
oroitzapenak gelditzen dira.

aek
Zuen lankideak

ESKELAK, JAIOTZAK ETA AGUR BEREZIAK

Eskelak, jaiotzak eta agur bereziak kontratatzeko:
e-posta: publizitatea@komunika.eus
Telefonoa: 688 625 394

_horoskopoa

TARTALO
01.20 - 02.18

Besteak zu baino azkarragoak direlakoan lan guztia euren esku uzten duzu. Horrek ospe txarra izatea eragingo dizu. Ez baduzu talde lanetan parte hartzeko ohitura kideek ez dute zure iritzia kontuan hartuko etorkizuneko erabakietan, esnatu!

HERENSUGE
03.21-04.20

Gripeak harrapatzeko joera daukazula diozu... osasuna zainduz gero ez duzu zertan izan. Prebentzio neurriak garrantzitsuak dira gaixotasunak saihesteko. Azken egunetan hotza da nagusi, beraz, ondo estali!

BASAJAUN
05.21 - 06.20

Proiektu guztietan parte hartzeko ohitura daukazu. Baina gauza gutxiago egiteagatik ez zara alferragoa. Egiten dena gutxi izan arren ondo egitea da garrantzitsuena. Guztia bikain egin nahi izanez gero gaizki bukatuko duzu.

GAUEKOAK
07.21 - 08.21

Gora-behera zabiltza azkenaldi honetan. Sentimenduek burua nahasten dizute eta zure oraingo barne-egoera ulertezina iruditzen zaizunez, emaitza jarrera desatsegina izaten da. Nazkatuko dituzu besteak azkenean, kontuz ibili!

AKERBELTZ
09.23 - 10.22

Kanpotik erakusten duguna norberaren egoera emozionala islatu behar du. Besteen aurrean zenbat eta zoriontsuago iruditu, orduan eta zoriontsuago izango garelakoan egoera depresiboetara heltzen gara.

ZIRIPOT
11.23 - 12.20

Geure buruaz ziur egotea ona da, betiere jakinda jakintsuak ez garela eta askotan besteen ikasle bihurtu behar garela. Ezagutza elkarren artean partekatu behar dugu!

GALTZAGORRIAK
02.19-03.20

Ez da komenigarria beti uste duguna pentsatzen dugun bezala esatea. Askotan gehiegi esateagatik hanka sartu dezakegu. Zentzuduna izan zaitez, noiz eta zer esan behar duzun ikasi, horretan datza azkarra izateak, esaten duzun hori ziur esatean!

LAMIA
04.21 - 05.20

Betiko pertsonak eta egunerokotasunak aspergarriak dira. Erraza da kexatzea erremediorik jartzen ez badiozu. Mundua hainbat pertsona eta kulturez betea dago, beraz, atera mundura pertsona bezala hazten lagunduko zaituela uste baduzu.

BASANDERE
06.21 - 07.20

Kanpokoen iritziak etxekoenak baino garrantzitsuagoak iruditzen zaizkizu. Egia da erabaki askoren aurrean objektibotasunak laguntzen gaituela, baina gehienetan ondo ezagutzen zaituena da komeni zaizunaz jabetzen dena; ez ahaztu!

JENTILAK
08.22 - 09.22

Zenbat denbora daramazu neba-arrebarekin eztabaidan edota haserretuta? Ez du pena merezi denbora horretan xahutzea. Eztabaidak guretzako garrantzitsuak diren pertsonekin izaten ditugu. Pentsatu, ez al duzu bere falta sentitzen?

MARI
10.23 - 11.22

Dirua irabazten hasi eta denetarik behar duzu, ezta? Aurrekontuak ez du hori esaten! Momentu honetan gehien behar duzuna dirua da baina aurreztu beharrean dena gastatzen duzu, eta gero? Gurasoenera joango zara negarti laguntza eske... lotsagarria.

SUGAAR
12.20 - 01.19

Etxera itzultzeko gogoak dituzu? Lagunek zu ahazteak kezkatzen al zaitu? Betiko lagunak betirako dira, urteak pasa ahala beti bezala jarraitzen dutelako gurekin. Ez horretan pentsatu!

_irakurlearen txokoa

_agenda

10.23 OSTIRALA

09:30 AIARALDEA
MOBILIZAZIOA
Guk, orain, hemen, gure hezkuntza erabaki!
Eskualdeko ikastetxeak

11:00 LAUDIO
ELKARTASUNA
IX. Elkartasun Azoka
Herriko plaza

18:00 LAUDIO
TAILERRA
Patxaran tailerra
Gaztetxea

18:00 AMURRIO
AISIALDIA
Umeentzako tailerrak eta gero Jam Session
Gaztetxea

18:30 OROZKO
BILERA IREKIA
Amandre emakume zirkulua
Kultur Etxea

19:00 URDUÑA
KIROLA
Ping pong txapelketa
Gaztetxea

19:00 OROZKO
UDAL BILERA
Auzo batzarra Muruetan
Soziala

19:30 LUIAONDO
EUSKARAREN JAIA
Euskal diskojaia familiarentzat
Frontoia


20:30 LAUDIO
POLITBURO FEST
Criatura, Mankaos, Flesh For Cannibals
Orbeko Etxea (5 €)

10.24 LARUNBATA

11:30 URDUÑA
BISITA GIDATUA
Burdina, artea eta hiria
Turismo bulegoa

11:30 ARTZINIEGA
ERAKUSKETA
Auto klasikoen erakusketa
Barrataguren

ALDAMAKO JAIAK



10.24 LARUNBATA
AMURRIO

10:00 Txozna irekiera
12:00 Meza
12:30 "San Simon eta Judas" igel-toka txapeleta
14:30 Herri bazkaria
16:00 Tute Txapelketa eta amaieran sari banaketa
18:00 Txokolatea

12:00 OROZKO
TAILERRA
Medikuntza tradizionala
Museoa

17:30 LAUDIO
SORGIN ZAPATUAK
Izozki itxurako markatzaileen tailerra
Gardeako Gizarte Etxea

17:30 OROZKO
HITZALDIA
Zura lantzea eta torneatzea
Museoa

18:00 ARESPALDITZA
EUSKARAREN JAIA
Aiara denon artean ekitaldia eta txokolatea
Azoka-lekua

20:00 AMURRIO
ANTZERKI AMATEURRA
Brooklyn
Amurrio Antzokia

20:30 LAUDIO
POLITBURO FEST
Ikära, Viva Bazooka, Gondoliers eta Killerkume
Orbeko Etxea (5 €)

22:00 LAUDIO
BAKARRIZKETA
Kalderas eta gero DJ Ruba
Sorgin Taberna

22:00 OROZKO
BISITA GIDATUA
Gau ibilbidea
Orozko museoa

10.25 IGANDEA

08:00 LAUDIO
OXIGENOA EUSKARAZ
Lezera txangoa, eskalada
Institutua

08:00 LAUDIO
MENDI IBILALDIA
XXXV. Laudio Ibarra Ibilaldia
Aldai Plaza

10:00 OROZKO
GAZTAINA EGUNA
Bisita gidatua eta bazkaria
Zubiaur plaza

10:00 OROZKO
UDAL BILERA
Auzo batzarra San Migelen
Baseliza

10:00 URDUÑA
BATZAR OROKORRA
Aiaraldean Lan Bizi eta Ikasi
Gaztetxea

11:00 OROZKO
BISITA GIDATUA
Burdinak landutako hirigintza
Museoa

12:30 AMURRIO
ALDAMAKO JAIAK
Triki poteoa
Aldama auzoa

17:00 LANTENO
UMEENTZAKO AISIALDIA
Magia ikuskizuna, askaria eta eskulan tailerra
Arte eskola

19:00 LAUDIO
MUSIKA EMANALDIA
San Roke musika bandaren kontzertua
Done Petri eliza

10.26 ASTELEHENA

19:00 LAUDIO
MIKOLOGIA ASTEA
Erakustaldi gastronomikoa Nerea Otaola sukaldariaren eskutik
Zubiko etxea

10.28 ASTEZKENA

14:30 AMURRIO
ALDAMAKO JAIAK
Herri bazkaria
Aldama auzoa

16:30 LAUDIO
BAKARRIZKETA
Después de los 40... y todavía soltera
Kultur Etxea

18:30 LAUDIO
BURU GAIXOTASUNAREN MUNDUKO EGUNA
Patologia duala, Javier Ogandoren eskutik
Kultur Etxea

19:00 LAUDIO
MIKOLOGIA ASTEA
Alfredo Conderen ikus-entzunezkoa
Zubiko etxea

19:00 AMURRIO
GASTRONOMIA TAILERRA
Jesus Barreña sukaldariaren eskutik
Refor

10.29 OSTEGUNA

19:00 LAUDIO
MIKOLOGIA ASTEA
Gorka Urkixori kideari omenaldia
Zubiko etxea

10.30 OSTIRALA

18:00 LAUDIO
KALEJIRA
Aiaraldean Gure Hezkuntza plataforma
Herriko plaza

18:30 ARRANKUDIAGA
UDAL BILERA
Berdintasun plana, emakumezkoen bilera
Udaltalde

19:30 ARTZINIEGA
ARIMEN GAUA
Bisita gidatua
Museoa

ZINEMA

10.25 IGANDEA

"50 HOMBRES MUERTOS"
URDUÑAKO GAZTETXEA
17:00etan doan



"MAGIAREN ETXEA"
AMURRIO ANTZOKIA
17:30ean (3,60 €)

"ZINEMA PALOMITEKIN"
LAUDIOKO GAZTETXOKOA
19:00 doan

"AMAMA" AMURRIO ANTZOKIA 19:30ean (4,80 €)



10.26 ASTELEHENA

"AMAMA" AMURRIO ANTZOKIA 20:00etan (3,60 €)

10.29 OSTEGUNA

"ALMA SALVAJE"
LANBIDE HEZIKETA UDAL IKASTETXEA 18:30ean doan



10.31 LARUNBATA
"MI FAMILIA ITALIANA"
LAUDIOKO LANBIDE HEZIKETA ESKOLA 17:30ean eta 20:00etan (3 €)

Jimmy jazz gasteiz


URR 22 // EL CABRERO + Emiliano Domínguez ZAPATA
21:00 (12 € + gastuak / 15 €)




URR 24 // 'ESTO NO ES ROCK RADICAL VASCO' ESKORBUTO - LA POLLA - KORTATU-ri OMENALDI ITZULIA
20:00 (11 € + gastuak / 14 €)


URR 28-29 // ARABAKO MUSIKA TALDEEN IX. LEHIAKETAKO FINALAURREKOAK
21:30 (18 € + gastuak / 22 €)


URR 30 // GLAUKOMA TA BAD SOUND
21:30 (8 € + gastuak / 10 €)

Andre Maria Zuriaren Koroatzea Kalea, 4
01012 Vitoria-Gasteiz
www.jimmyjazzgasteiz.com/eu

AMURRIO ANTZOKIA
IV AMATEUR ANTZERKIEN ERAKUSTALDIA


¡AY, CARMELA!
Urriak 17 -20:00
Carocota taldea (Reinosa)


BROOKLYN
Urriak 24 - 20:00
Veneno taldea (Valladolid)


BODAS DE SANGRE
Urriak 31- 20:00
El Bardo taldea (Villava)

SARRERA 4€
KULTUR ETXEAN ETA TAKILAN
ANTOLATZAILEA: AIMARA ANTZERKI TALDEA

etxaurre higiezinen agentzia

ETXEA SALGAI LAUDION
Prezioa: Kontsultatzeke
77 m²(117 m² guztira) 3 gela, bainugela, sukaldea, egongela, 18 m² txoko-jantokia, 16 m² txokoa, 6 m²-ko trastelekua, loralegia, eguzkitsua.
Erref.: 167. 659



ETXEA SALGAI LAUDION
Prezioa: Kontsultatzeke
250 m²-ko etxea, bi solairu, 4 gela, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiarekin, garajea, 678 m²-ko lursaila frutarbolarekin, eraberritzeko.
Erref.: 167.652

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 96.000 €
67 m², 2 logela, bainugela, sukaldea jantokiarekin, egongela, balkoia, eraberritzeko.
Erref.: 167.657

ETXEA SALGAI LAUDION
Prezioa: Kontsultatzeke
300 m², 5 logela, 2 bainugela, sukaldea amerikana, egongela, 22.500 m²-ko lursaila, 3 solairu 100 m² bakoitza, egoera bikaina.
Erref.: 167.650

www.etxaurre.com
Tlfnoa: 94 672 85 50

_ezin galdu



XXXV. LAUDIO IBARRA IBILBIDEA: Goikogane Mendi Taldeak 26 kilometroko ibilbidea prestatu du urriaren 25rako. Alpitxu, Goikogana, Kamaraka eta Ganekogorta mendietako tontorrak zeharkatuko ditu ibilaldiak. Aldai plazatik abiatuko da martxa, 08:00etan.



GAZTAIN EGUNA: Supelaur Kultur Elkarteak gaztainaren garrantzia berreskuratzeko lan handia egin du Orozkon. Ez bakarrik kirikiñauseak konponduz, baizik eta bere kokapena eta testuinguruaren transmisioa eginez. Urriak 25ean 10:00etan abiatuko da ekimena Zubiaurretik.

_kontra



Jabi Isasi

Ainhoa Gorordo

"Gu ta gutarrak-en nahiago dut satorra izan jatorra baino, hobeto pasatzen dugu!"

AINHOA GORORDO (1996, Orozko) ETB1eko "Gu ta gutarrak" programan lehiatzen ari da. Euskal Herriko koadrila jatorrenetako bat izateko hautagaia da. Telebista saioak jendearen kritikak baino maitasuna eman dio.

ERREDAKZIOA I Izar Mendiguren Cosgaya

Ingeniaritza kimikoa ikastetik telebistara egin duzu jauzi. A ze pausoa!

Benetan! Txikitan oso lotsatia nintzen, beti amaren atzetik nenbilen, hitz egitea kostatzen zaitzaidan... Inork ez zuen espero ni telebistan egotea. "Gu ta gutarraken" jarraitzailea izan naiz beti.

Zer behar da gutarra izateko?

Nortasun handia, eta ideiak argi izatea. Atsegina, alaia izateak laguntzen du. Batez ere pertsona jatorra izan behar zara, lagunen laguna.

Platoan ala kalean, non dago kuxkuxero gehiago?

Platoan kuxkuxeroek kaña asko sartzen dute baina jatorrak dira. Kalean jendeak komentarioak egiten ditu, nik txarrak oso gutxi izan ditut, baina kontuz ibiltzeko esaten didate.

Realityek errealitatetik badute ezer?

Dena dago planifikatuta. Asteburupasa goazenean zer egin behar dugun esaten digute. Oso ondo pasatzen dugu. Telebistan gauzak asko exajeratzen dira. Gu han gaudenean gauzak oso natural ateratzen dira.



Bikoteak eta pikeak ere beneta-koak dira, haserreak ere bai. Hori bai, Esnatu berri foko eta kamara bat izatea gertu kontraste handia da.

"Jatorra" ala "satorra" izatea, zer duzu nahiago?

Satorra izatea, dudarik gabe! Jatorrak beti onak dira, baina satorrek mendekua egiten diete jatorrei eta askoz hobeto pasatzen dugu! Saioaren amaieran proba bat egiten da talde jatorra edo satorra zein den erabakitzeko. Programan proba asko jartzen dizkigute. Gerta daitekeen txarrena dutxa hotza botatzea da, horregatik 3-4 arropa konjunto eramaten ditugu badaezpada

Zer pentsatzen duzu zure burua telebistan ikusten duzunean?

Ez naiz famatu sentitzen, Ainhoa Gorordo baizik, betiko 19 urteko orozkoarra. Fama ez zait burura igo. Bizitza normala egiten dut. Autografoak eta argazkiak eskatzen dizkidatenean harritu egiten naiz, ez dut espero. Pantailaren atzean daudenak 13 urte inguruko gazteak dira. Batzuk lotsatu egiten dira ikusten gaituztenean. Egurra baino, maitasuna ematen du "Gu ta gutarrak" programak. Jendeak "Nire faborita zea" eta horrelako mezuak bidaltzen dituenean ilusioa egiten du, babestua sentitzen zara.

Telebistak ligatzen laguntzen du?

Apur bat bai. Jendeak ezagutzen zaitu, ez dago txarto.

Nori jarri edo emango zenioke txapela?

Aitari. Beti dago babesten, egunero ematen dizkit aholkuak, energia positiboa eta besarkadak.

Zein da telebistan irauteko formula?

Jendeak estrategia behar dela dio. Nik ez dut estrategiarik, ni neu izaten saiatzen naiz. Ondo pasatuz eta gozatuz %100 ematea da nire helburua.



Itziar
Urkijo
HEZITZAILEA

_Leihotik

Bizitzaz dakigun apurra

Tradizioz, bizitzaren zirrikitu guztien inguruan aritu gara hain zabala den terminoa murriztu nahian. Konplexutasuna sinpleegi bihurtzearen arriskuan erori eta jaiotzetik heriotzara doan denbora-bitarte moduan aurkeztu da sarritan bizitza. Gauzak ulertu ahal izateko, mugatzearen beharra sentitzea izan daiteke gizakion akatsetariko bat gaur egun. Hala ere, ezer gutxi dakigu bizitzaz. Iraupena finkatzen saiatu ginen, bataz-besteko 80 urteko ibilaldiaz arituz. Gaur egun, jakin badakigu bizitzaren iraupena neurtzeko bidea hori ez dela. Honi lotuta, emakumeen bizi-itxaropena gizonezkoena baino luzeagoa dela argi daukagu. Zoritxarrez, gezurra dirudi egunerokotasunaren zertzeladak ikusita. Bizitza, aurrera begiratuz egin beharreko bidaia omen dela entzun dugu betidanik, baina ulertu ahal izateko berriz, atzera begiratu behar momentu oro. Bizitzaren xedeaz ere aritu dira asko, garapen pertsonala lortzea, maitasuna besarkatu ahal izatea... pertsonalki, bizitzaren xedea, bizitzaren erritmora dantzatzea dela uste dut, bidai honetaz barre egin eta gauza guztien gainetik, BIZITZEA.

Graf!k
PRODUKTU PROMOZIONALA
JANTZI ZERBITZUAK
MARKA KUDEAKETA///
Telleria 2, LAUDIO
94 672 65 43
pro@grafiksarea.com
www.grafiksarea.com



GUREKIN ERE EUSKARAZ!
JAIETARAKO PRODUKTU PERTSONALIZATUAK
KAMISETAK, ZAPIAK, ...
BEHAR DUZUNA ESKATU
ETA LORTUKO DUGU///
SERIGRAFIA, BORDATUA,
BINILOA, INPRESIO DIGITALA